



MONDRAGON

GIZATASUNA  
LANEAN

Finantzak  
Industria  
Banaketa  
Ezagutza

# URTEKO TXOSTENA 2012





# MONDRAGON: pertsonak eta lankidetzak

MONDRAGON gara, Espainiako enpresa talde nagusietako bat, eta nazio mailako estaldura dugu, baita hedapen handia ere nazioartean. Gure Korporazioa enpresa talde sendo eta dibertsifikatua da, industria, finantza eta banaketaren sektoreetan dago presente, eta ezagutzaren eta hezkuntzaren eremuan ere ekimen garrantzitsuak garatzen ditu.

Horri guztiari esker, gaur egun euskal enpresa taldeetan lehenak gara, MONDRAGONen integratutako

289 erakunde baino gehiagorekin, eta mundu osoan barreiatutako 100 produkzio zentro baino gehiagorekin.

Jarrera berritzailea, lankidetzan aritzeko ahalmena eta nazioartekotzearen aldeko apustua dira gure nortasunaren ezaugarriak. 15 zentro teknologikoz osatutako berrikuntza sare bat dugu, 2.000 pertsona baino gehiago I+Gra dedikatuta, eta mundu osoan dugu presentzia produktiboa eta komertziala.

Hori da gure proiektua, testuinguru ekonomiko konplexu honetan alternatiba arrakastatsua dela erakutsi duen enpresa proiektua. MONDRAGONen ereduan pertsonak dira enpresaren benetako protagonistak, eta konpromisoa, erantzukizun soziala, parte hartzea eta gardentasuna bere ADN kooperatiboaren parte dira. Proiektua pixkana-pixkana munduan erreferentzia bihurtu da lankidetzak bidezko lanaren arloan.

# KUDEAKETAREN BIKINTASUNARI BURUZKO ERREKONozIMENDUAK

Datuak 2012ko abenduaren 31n

Europako EFQM 1. Sariaren Finalista, Fagor Etxetresna Elektrokoak (Egosceta).

Europako Ingurumeneko 1. Saria, Orkli.

9 Urrezko Q: Euskadiko Kutxa, Copreci, Fagor Industriala, Fagor Etxetresna Txikiak, Eroskiko Produktu Freskoen Zornotzako Plataforma, Mondragon Lingua, Politeknika Txorierri Ikastetxea, Lagun Aro Aseguruak eta Soraluze.

18 Zilarrezko Q: Auzo Lagun, Eroski Zornotza, Elorrio, Agurain eta Zorrotzako Plataformak, Enpresagintza, Fagor Elektronika, Fagor Etxetresna Elektrokoak Konfort, Fagor Etxetresna Elektrokoak Garbiketa, Fagor Etxetresna Elektrokoak Altzariak, Geysler-Gastech, Lea Artibai Ikastetxea, Mondragon Goi Eskola Politeknikoa, Orkli, Soraluze, Ulma Packaging, Ulma Piping, Ulma Handling, Eroski Bidaiak eta Domusa.

105 ISO 9000 ziurtagiri.

60 ISO 14001 Ingurumen ziurtagiri.

6 Ekodiseinu ziurtagiri: Fagor Etxetresna Elektrokoak, Geysler-Gastech, Orona, Eredu, Soraluze eta LKS Ingeniaritza.

33 OHSAS 18000 ziurtagiri Laneko Arriskuen Prebentziorako Sistemiei buruz.

Erantzukizun Sozialaren SA 8000 ziurtagiri bat, Eroski.

Familiarekiko Enpresa Arduratsuaren ziurtagiri bat, LKS.

1 Bikain Beltza, ONAPRES 2010.

7 Bikain Zilarrezkoak: BATZ 2009, DANOBATGROUP 2008, Eroski 2008, Fagor Etxetresnak 2008, Maier 2008, Orkli 2008 eta Copreci 2011.

3 Bikain Urrezkoak: Eka 2009, Enpresagintza 2009, Huhezi 2009.

1 Bai Euskarari, BATZ 2007.



# LEHENDAKARIAREN MEZUA



2012an munduko ekonomia % 3,2 hazi da, baina igoyeraren banaketa oso modu desberdinetan egin da. Horrenbestez, gorabideko ekonomiak batez beste % 5,1 hazi dira, baina aurreratua 4 puntu portzentual inguru azpitik ibili dira (hau da, batez beste % 1,2).

Herrialde garatu askoren egoera larria aspalditik dator, eta krisian dagoen ekonomia bat erakusten du, eta muskulu eskasa duena susperraldia aktibatzen eta enplegua sortzeko.

Egiazki, mundu garatuaren politika ekonomikoan aldeak daude herrialde batzuetatik besteetara: AEBetan bere enbor ekonomikoaren ahultasuna orekatzeko masiboki sartu duten likideziaren "dopinari" heldu diote, eta Europa komunitarioan, berriz, "dieta fiskalaren" bidea nahiago izan dute, bere etiketekin, defizitaren % 0 orantz joz eta alferrikako gastua murriztuz.

Espanian 2012aren itxieran BPGak % 1,4ko jaitsiera zuen, eta langabezi tasa % 26 zen. Panorama horrekin, egokiena hazten ari diren merkatuak bilatzea da, eta berritzea, egokitu ahal izateko.

Kontrako testuinguru ekonomiko horretan, segurtasun, ziurgabetasun

eta konfiantza falta orokorreko giro batean ekin diogu 2012ko ekitaldiaren gestioaren garapenari. Ekitaldian, ingurumari horiek gorabehera, indar berria eman diogu nazioartekotzeari, eta BRIC merkatuetan dugun presentzia indartu dugu; berrikuntza sustatu dugu, **M4FUTURE** eredu berria abiaraziz, eta gure negozioetako batzuk birkokatu ditugu. Halaber, aurreko urteetako doikuntza neurriak ezartzen jarraitu dugu, kontrako eszenatokian jarduteko. Hala eta guztiz ere, gure plantilla % 3,9 murriztu da aurreko urtearekiko.

2012ko ekitaldian, ikuspegi korporatibotik alderdi hauek nabarmentzen dira:

- **Nazioartekotzean**, salmenta internazionalen zifra 2012an % 1 hazi da 2011rekiko, eta horrek taldearen izaera globala areagotzeko balio izan du. Geure konbentzimendua berretsi da, hau da, nazioartekotze indizirik handiena duten enpresek hazteko palanka handia dutela, uzkuertzen ari diren merkatu lokalekiko gehiegizko menpekotasuna izatetik datozen arriskuak arindu, neutralizatu eta dibertsifikatzeko eta, ondorioz, gure ingurunean lanpostuak hobeto defendatzeko eta balio berria emateko. 2012ak gorabidean dauden merkatuetan presentzia korporatiboari beste bultzada bat emateko balio izan du, BRICetan salmenten hazkundea % 20 izan baita, eta azken lau urteetako hazkunde metatua % 85.

Industria Arloaren salmenten ia % 70 nazioartekoak dira dagoeneko. Halaber, 2012an nabarmendu behar da Txinako Kunshan industri parkean **Fagor Ederlanek** eta **Cikautxok** produkzio lantegiak inauguratu dituztela, eta Indiako parke berria ere inauguratu dela (Pune) eta gune horretan kokatu den lehenengo enpresa martxan jarri dela (**DANOBATGROUP**).

- **Berrikuntzaren** arloan ere aurrerapen egokia izan dugu. 2012an zehar Berrikuntza Korporatiborako

Eredu berria martxan jarri da, **M4FUTURE** izenarekin; proiektu berriak I+G+b arloko ahalegin korporatiboak bateratu nahi ditu, garapen, ezagutza eta jarduera berriak bultzatzeko eta, horri helduta, Korporazioarentzat estrategikoak izango diren sektore berrietan enplegua sortzeko.

Proiektu esanguratsuei dagokienez, azpimarratzekoak dira **Orona IDEO-innovation city**ren garapena, Galarretan, 2014an inauguratzea espero dena, **MONDRAGON Eko** eratzea, eta MONDRAGON Healthen esparruan **Fagor Healthcare** abiaraztea, farmazia anbulatoriorako medikamentuak ontziratzen ekipamenduak saltzeko, eta **Kiro Robotics**, zeinak dagoeneko instalatu duen minbizia tratatzeko medikamentuak automatikoki prestatzeko lehenengo ekipamendua.

- **Elkarren arteko lankidetzaren** arloan, sektore berriak garatzeari bultzada berria eman zaio, MONDRAGONeko BACen bitartez (Business Acceleration Center), eta aipatu zentroak hainbat saio gidatu ditu dibisioen arteko negozioen azterketa egiteko.

Gainera, 2012. urtea "Kooperatiben Nazioarteko Urtea" izan zen, eta efemeridea ospatzeko eslogana izan zen "enpresa kooperatiboek mundu hobea eraikitzen dute". Ekitaldiak aukera eman dio MONDRAGONi bere irudia mundu mailan proiektatzeko, nazioarteko hainbat komunikabidetan erreportaje ugari egin baitute, kooperatibek lehiarako eta garai zailak gainditzeko dituzten mekanismo berezietan erreportatuz, betiere aberastasuna eta enplegua sortu nahi duen proiektu sozioenpresarialaren zerbitzura.

Txema Gisasola

# AURKIBIDEA

## GINARRIZKO DATUAK | 8-9

## ARLOAK: FINANTZA, INDUSTRIA, BANAKETA ETA EZAGUTZA | 10-11

1.1 Finantza Arloa.....	12
· Euskadiko Kutxa .....	13
· Lagun-Aro, EPSV .....	14
· Lagun Aro Aseguruak .....	14
1.2 Industria Arloa .....	16
· Kontsumo ondasunak .....	19
· Ekipo ondasuna .....	20
· Industria osagaiak .....	25
· Eraikuntza .....	28
· Enpresa zerbitzuak .....	30
1.3 Banaketa Arloa .....	34
1.4 Ezagutza Arloa .....	38
· M4FUTURE berrikuntza eredu korporatiboa .....	38
· Zentro teknologikoak eta enpresen I+G unitateak .....	40
· Beste hezkuntza zentro batzuk ...	50

**EGOERA ORRI EKONOMIKOAK  
ETA ONDAREARENAK | 52-53**

**ANTOLAMENDUAREN  
EGITURA. ERAKUNDE  
SOZIALAK ETA  
ZUZENDARITZAKOAK | 58-59**

**ENPRESEN  
ZERRENDA | 62-63**



# OINARRIZKO DATUAK

## MONDRAGON

**289**  
ENTITATE

**110**  
KOOPERATIBA

**147**  
SOZIETATE  
FILIAL

**8**  
FUNDAZIO

**1**  
MUTUA

**10**  
ESTALDURA  
EMATEKO ENTITATE

**13**  
NAZIOARTEKO  
ZERBITZU

## ENPRESA GARAPENA

	2011	2012	Milioi euro. Ald. %
AKTIBOA GUZTIRA	32.454	35.887	10,6
BALIABIDE propioak	3.999	3.943	-1,4
EBITDA	1.302	1.289	-0,9
EUSKADIKO KUTXAKO bezeroen GORDAILUAK	18.209	18.636	2,3
LAGUN-AROKO ONDARE FONDOA	4.532	4.876	7,6
SARRERAK guztira	14.832	14.081	-5,1
SALMENTAK guztira (Industria eta Banaketa)	13.969	12.903	-7,6
INBERTSIO garbiak	194	331	70,6

## ENPLEGUA

	2011	2012	Ald. %
Batez besteko LANPOSTUAK	83.569	80.321	-3,9
Industria Arloko kooperatibetako BAZKIDEEN % langile guztiekiko	82	85	3,7
Kooperatibetako bazkide EMAKUMEEN %	43	43	0
Industria Arloko intzidentzi edo ISTRIPU tasa	35,9	34,1	-5



**PARTE HARTZEA**

	2011	2012	Ald. %
Bazkide langileen KAPITAL SOZIALA	1.816	1.838	1,2
Gobernu Organoetan dauden BAZKIDE LANGILEEN KOPURUA	872	872	0

**ELKARTASUNA**

	2011	2012	Ald. %
Eduki sozialeko jardueretara zuzendutako BALIABIDEAK	18,4	17,2	-6,5
Hezkuntza zentroetako IKASLE KOPURUA	9.304	11.348	22

**INGURUMEN KUDEAKETA**

	2011	2012	Ald. %
Indarrean dauden ISO 14000 ziurtagiri kopurua	59	60	1,7
EKODISEINU ziurtagiri kopurua	6	6	0

**ETORKIZUNeko APUSTUA**

	2011	2012	Ald. %
I+Gra zuzendutako baliabideen % Industria Arloaren balio erantsiarekiko	9,1	9	-1,1
ZENTRO TEKNOLOGIKOEN eta I+G Unitateen kopurua	14	15	7,1
IKERLARI kopurua guztira	1.885	2.096	11,2





**Arloak:**

**FINANTZA,  
INDUSTRIA,  
BANAKETA  
ETA EZAGUTZA**

# FINANTZA

Arloa



Krisi finantzarioaren testuinguruan, 2012ko ekitaldian ezaugarriak berriro ere izan dira ekonomia errearen bilakaera negatiboa, finantza publikoen egoera eta bankuen balantzeen kalitateari buruzko zalantzak. Horrek guztiak sektorearen birmoldaketa erabatekoa eragin du, eta araudian aldaketa sakonak egin dira Espainiako banku sistema berrantolatze, kapitalizatze eta birmoldatzeko, eta halaber azpimarratu behar da aurrezki kutxa gehieneko negozioa neurri handiagoko bankuetara aldatu dela.

Adierazi behar da nazionalizatutako erakundeek kapitalean 38.000 milioi euroko injekzio publikoa jaso zutela Egonkortasuneko Europako Mekanismoaren aldetik, eta sistemaren gainerako ataletan desinbertsioen, gestio ekitaldi pasiboen eta ekintza berrien jaulkipenaren bidez handitu dute kapitala.

Espero izatekoa da banku sektorearen birmoldaketa eta birkapitalizazioan egindako aurrerapen horiekin guztiarekin, eta 2012an zehar egindako hornidura handiagoekin eta aktibo higiezinak Sareb elkartera (Banku Birmoldaketatik eratorritako Aktibo Higiezinak Kudeatzeko Elkartea) pasatzearekin finantzen sektorea kokapen lehiakor hobean jarriko dela, finantzen merkatuetan konfiantza lortu ahal izateko.

Euroguneari dagokionez, finantza merkatuen egoera normalagoa berreskuratzeko estatu kideek erakutsi egin behar dute maila nazionalean neurri estrukturalak hartzeko gaitasun dutela, eta eurogune osoan bultzatzen diren erreformak ere kontuan hartu behar dira, esaterako, Banku Batasunaren ingurukoak.

## EUSKADIKO KUTXA

Merkatuaren egoera zail horren barruan, Euskadiko Kutxak zorrotz egin die aurre jasan dituen erronkei, eta halaber kooperatiba den Ipar Kutxarekin egin duen bat egitea ere arrakastatsua izan da.

Bat egitea 2012ko azaroan zehaztu zen, kreditu kooperatiba berri baten sorrerarekin, aurrekoaren izen berarekin, hau da, Caja Laboral Popular S. Coop., eta tokiko bankua izan nahi du, kooperatiboa, eta gizartean eta MONDRAGON Korporazioan errotua.

Araudietan egon diren aldaketa sakonei dagokionez, eta Espainiako higiezinaren krisiaren ondorioz bankuen balantzeetan egin behar izan diren saneamenduei dagokionez, adierazi behar da Caja Laboral berriak arrakastaz gainditu duela proba eta, lortu dituen kaudimen, produktibitate eta likidezi zifrei esker, aurreko postuetan dagoela bankuen mapa berriaren barruan.

2012ko abenduaren 31ko egoeraren **balantzean**, bat egindako erakunde berriaren aktiboak guztira 24.364 milioi euro ziren, 2011ko itxieran baino 3.524 milioi euro gehiago, hau da, % 17ko hazkundea egon zen.

### Bezeroen gordailuak guztira

18.636 milioi euro ziren urtearen amaieran. Bereziki azpimarratu behar da erretirorako epe luzerako aurrezki saldoen hazkundea, BGAE-en eta pentsio planen bitartez, horien saldoak 132 milioi euro handitu baitira, % 10, bi erakundeek aurreko ekitaldian izandako baturarekin alderatuta.

### Kreditu inbertsioari erreparatzen

badiogu, urtearen amaieran 16.502 zenbatu zen, 1.344 milioi euroko hazkundearekin aurreko Euskadiko Kutxarekin alderatuta; dena dela ere, aurreko bi erakundeen batura kontuan hartuta, kontsumorako maileguz zein enpresentzako maileguz dagokionez, hazkundeak negatiboak izan dira, gaur egun dagoen krisiak familien kontsumoan zein enpresetan inbertsioak egiteko duen eraginaren isla. Garrantzitsua da aipatzea, hipoteka maileguen eskaeran motelaldia gertatu bada ere, Euskadiko Kutxaren balantzearen murrizketa % 1 izan dela; horrek erakusten du bere kokapenean egonkortasun handia duela, familien beharrak epe luzera finantzatzeari dagokionez.

Ekitaldiko beste erronka berankortasuna kontrolatzea izan da, jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren okerraldiaren erasana nozitu baitu. Horrenbestez, ekitaldiaren itxieran, berankortasun indizea % 6,95ean kokatu zen, hau da, maila onargarrian, eta oso toki onean geratzen da sektorearen batez bestekoarekin alderatuta.

**Fondo propioak** ekitaldiaren amaieran 1.319 milioi euroan zeuden eta, ondorioz, kaudimen koefizientea, Kapital Nagusiaren kontzeptu zehatzean, % 11n kokatu zen, sektore finantzarioko altuenetakoan artean, eta marjina handiarekin legezko betekizunei dagokionez, horiek gaur egun % 9an kokatuta baitaude.

**Bilakaera ekonomikoari** erreparatu gero, joan den ekitaldia oso konplikatu izan da errentagarritasunaren ikuspegitik, saneamenduen inguruan

### BEZEROENTZAKO KREDITUAK



### BEZEROEN GORDAILUAK



### AKTIBOAK GUZTIRA



aipatu den betebeharragatik. Horren aurrean, azpimarra daiteke Euskadiko Kutxak zuhurtasun erabateko jardun duela, lehen esan diren kaudimen zifrak lortzeko, emaitzen eta erreserben konturako hornidura plan bati aurre egin behar izan dion arren, 982 milioi euroko zenbatekoarekin.

Interesen marjinak zein marjina gordinak eta ustiapen gastuek hobekuntzak izan dituzte jatorrizko bi Erakunde baturari dagokionez, negozio errepikariaren portaera onaren ondorioz eta, horrenbestez, Erakunde berriak, martxan izan



den hilabeteetan, 22 milioi euroko emaitzak lortu ditu, ekitaldi osoko kapitalerako interesak ordaintzeko bezainbeste.

**Efizientzi ratioa**, hau da, ustiapen kostuen eta erakundeak lortutako sarreren arteko erlazioa, hobetu egin da 2012an ere, bankuen merkatuak izan dituen arazoak gorabehera, eta % 43,9an kokatu da, alegia, oso maila onean neurri handiagoko beste kutxa batzuekin alderatuta.

Ekitaldiko beste mugari garrantzitsuenetakoa da Euskadiko Kutxaren bulegoetan aseguruetan espezialistak diren 230 kudeatzaile integratu direla, Lagun Aro Aseguruen garai bateko saretik etorritakoak. Integrazio hori 2013ko urtarrilaren 2an

Euskadiko Kutxak eta Ipar Kutxak bat egiteak tokiko bankurako proiektu kooperatiboa sortu du.



osatu zen, eta bere helburua da Banka-Aseguruaren eredu berri bat hedatzea, produktu finantzarioekin integratuta; eredu hori berria da espainiar merkatuan, Europako beste herrialde batzuetan ohikoagoa bada ere.

Nazioartean, atzerriko gaiei lotutako eragiketetan, Euskadiko Kutxak 1.000 korrespontsal baino gehiagoko sare bat dauka mundu zabalean. 2012an nazioarteko transakzioei lotutako negozioaren arloan 2.908 milioi euro kuantifikatu ziren.

## LAGUN-ARO, EPSV

Lagun-Aroko mutualisten kolektiboa, gehienbat, MONDRAGON osatzen

duten kooperatibetako bazkideekin osatuta dago. Lagun-Aroren jarduera, nagusiki, kolektibo horren eta beraren senide onuradunen babes soziala da, Gizarte Segurantzako Sistema Publikoaren antzeko irismenarekin.

2012ko abenduaren 31n, mutualisten kolektibo horretan 29.531 pertsona zeuden, 142 kooperatibatan integratuta, eta aurreko urtekoen antzeko mailetan zegoen.

Erretiro, Alarguntasun eta Aldi Baterako Ezintasunerako prestazioen estaldura denbora tarte handietan eta mutualista kopuru handi batentzat egin behar da, eta pentsio horiek bermatuko dituzten hornidurak eratuz finantzatzen dira.

2012ko ekitaldiaren amaieran, pentsiodunen kopurua 10.929 pertsona zen, 2011ko itxieran baino 595 gehiago, eta kontzeptu horientatik ordaindutako zenbatekoa guztira 135 milioi euro izan da, aurreko urtean baino % 8,8 gehiago.

Kapitalizazioko prestazio horiek Ondare Fondo baten bidez bermatzen dira, eta bertan, 2012aren itxieran, 4.876 milioi euro zeuden, errendimenduak eta ekitaldiaren itxieran erregistratutako balioen doikuntzak aplikatu eta gero. Aurreko urtearekin alderatuta, Ondare Fondoa 344 milioi euroekin handitu da, hau da, % 7,6ko hazkunde portzentuala izan du.

Aurreko urtean finantza merkatuetan izandako aldakortasun handia gorabehera, eta hain testuinguru zaila aldi batera utzita, lortutako emaitzak oso positibotzat jo daitezke, urtearen amaierako errentagarritasuna % 8,05 izan baita, eta Kaudimen Marjina mantendu egin baita (% 7,19), legez exijitzen den % 4tik oso gora.

Banaketako Prestazioen zenbatekoa, hau da, epe laburrerako prestazioak estaltzen dituztenena, 67 milioi euro izan da 2012. urtean, eta bereziki arlo hauetara zuzendu dira:

· Aldi Baterako Ezintasuna, 30 milioi euro (guztizkoaren % 45).

· Enplegurako Laguntza, 19 milioi euro (guztizkoaren % 28).

· Osasun Laguntza, 13 milioi euro (guztizkoaren % 20).

· Gainerakoak (laguntzak eta famili prestazioak), 5 milioi euro (guztizkoaren % 7).

Aldi Baterako Ezintasunaren prestazioaren gastua jaitsi egin da 2012an, absentismo tasaren bilakaerak beherantz egin duelako, 2011n % 5,37 izatetik 2012ko itxieran % 4,68 izan baita. Horren ondorioz, ekitaldian 2,67 milioi euroko superabita egon da eta, hori 2011tik zetorren geldikinari kentzen bazaio, prestazioaren saldoa 1,03 milioi euro dela ateratzen da.

Enplegurako Laguntzari dagokionez, gastua 2012an 19 milioi eurora iritsi da. Gastu hori, aurreikusita zegoen bezala, ekitaldiko sarrera maila baino handiagoa izan da, eta urtean 5,3 milioi euroko defizita eragin du. Edonola ere, 37 milioi euroko saldo metatua mantentzen jarraitzen da, datozen ekitaldiei aurre egiteko.

Urtean zehar behin betiko izaera duten 269 irtenbide eman dira soberakin ziren mutualistentzat, eta gehien erabili diren modalitateak izan dira Behin Betiko Birkokapena (60) eta Aurretiazko Erretiroa (179).

## LAGUN ARO ASEGURUAK

2012. urtearen ezaugarria ibilgailuen matrikulazioen eta etxebizitzaren salmenten erabateko jaitziera izan da, krisi ekonomikoa luzatzearen ondorioz. Ingurunearen beste ezaugarri garrantzitsu bat izan da oso arlo garrantzitsuetan fakturazioa orokorrean jaitsi egin dela, horien artean Automobilaren sektorean, batez ere batez besteko primaren jaitsieragatik, zeina halaber eskariaren ahultasunaren eta konpainien arteko lehiaren ondorioa den.

Hori guztia gorabehera, Lagun Aro Aseguruek nabarmen hobetu dituzte beren **emaitzak** aurreko urtearekin alderatuta, zergen aurretik 32,4 milioi euroko etekina lortu baitute, hau da, 2011n baino % 106,74 gehiago, urte horretan 16,4 milioi euroko etekina lortu baitzuen.

**Fakturazioa** guztira 178,8 milioi euro izan da. Zifra oso horretatik, 117,4 milioi Seguros Lagun Aro, SARI dagozkio (% 7,8ko jaitzierarekin 2011rekin alderatuta), eta 61,4 milioi Seguros Lagun Aro Vida SARI dagozkio.

Seguros Lagun Aro SAn fakturazioaren jaitziera batik bat Automobilen batez besteko primaren murrizketatik dator. Eta Seguros Lagun Aro Vida SAn, hor ere fakturazio txikiagoa dagoelarik, nabarmentzekoa da Bizitza Arriskuan fakturazioa % 1,7 handitzea lortu dela, arlo horretan sektoreak izan duen beherakada ez bezala.

Urte honetan erregistratutako emaitzen hazkundearen oinarrian daude batez ere istripuak murriztea eta konpainiaren barruan **barne eraginkortasuna** hobetzeko prozesuak abiarazi izana. 2012. urtearen amaieran bezeroen kopurua 362.000 zen.

2012an lortutako emaitza onek **Caja Laboral Taldeko** kidea den erakundeak gauzatutako gestio egokia abalatzten dute, baita ere zerbitzuaren kalitate onean oinarritutako estrategia, eta aseguruak Euskadiko Kutzaren bitartez banatzea erabaki ona izan dela erakusten dute. 2013aren hasieran zuzeneko kanalaren pertsona guztiak integratzeko prozesua osatu da, erakunde finantzarioaren barruan aseguruak saltzeko espezialista moduan, eta berdin bitartekaritza kanalean, non nobedade handiak egiten ari diren bide hori sustatzeko eta garatzeko.

Halaber, Lagun Aro Aseguruek hartutako konpromisoa indartzen dute EAEn eta Nafarroan lidergoa mantentzeko eta Espainiako gainerako lurraldeetan modu errentagarrian eta etengabe hazteko. Bi



konpainien **kaudimen** maila handiak indartzea ere ahalbidetzen dute, kaudimena ezinbesteko elementua baita epe luzerako iraunkortasuna lortuko bada. Horrenbestez, Kaudimen Marjina 36,92 milioi euroan dago Seguros Lagun Aro SAn, eta 39,95 milioi euroan Seguros Lagun Aro Vida SAn.

Horrez gain, Lagun Aro-Gizarte Begirada Fundazioak gizartean lan handia egiten jarraitzen du, bere hiru jarduera esparruetan: herritarren artean kirola bultzatzea osasuna sustatzeko, kultura bultzatzeko ekintzak, zehazki euskararen sustapen babestuz Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan, eta trafiko istripua

nozitu duten pertsonen bizitza kalitatea hobetzera bideratutako ekimenak martxan jartzea. Hori guztia Konpainiak bere Fundaziora etekinen % 3,5 bideratzen duelako da posible.



# INDUSTRIA

Arloa



2012. urtean % 3,2ko hazkundera izan dugu mundu mailan, oso portaera desberdinekin. Gorabidean dauden ekonomiak % 5,1 hazi dira, baina ekonomia aurreratuak % 1,3 hazi dira, eta erregistro hori ez da nahikoa langabezi egoerari estaldura emateko eta ekonomiaren susperraldia aktibatzen, krisiaren irteera ikusten hasi ahal izateko.

Espanian, BPGaren jaitsiera % 1,4 izan delarik, sektore produktibo guztiek, bereziki eraikuntzari lotuta daudenek, zinez ekitaldi konplikatuak sufritu dute berriro ere, izan ere, Europako atzeraldiak okerrera egin du etengabe, batez ere enpleguari dagokionez.

Testuinguru horretan, MONDRAGONeko Industria Arloak lortu duen **fakturazioaren zifra** 5.812 milioi euro izan da. Atzerriko merkatuen alde egindako apustua **nazioarteko salmentetan** lortutako zifrarekin berretsi da, 4.004 milioi euro, hau da, salmenta guztien % 68,9, eta horrek hein batean konpentsatu egin du estatuko salmenten erorikoa.

#### SALMENTAK GUZTIRA



#### NAZIOARTEKO SALMENTAK



#### INBERTSIOA



Kanpoko zabalkundeari dagokionez, atzerriko merkatuetan finkatzen jarraitu dela nabarmendu behar da, izan ere, Txinan, Indian, AEBetan,

Brasilen, Mexikon, Kolonbian eta Europan dauden lantegi edo produkzio zentroekin, dagoeneko 105ekoa da atzerrian dauden filial produktibo kopurua. Ildo horretan aipa daiteke:

- Txina: **Fagor Ederlanek** eta **Cikautxok** bi instalazio berri inauguratu zituzten Korporazioak Kunshanen duen industri parkean. **Batzek** produkzio lantegi bat ireki zuen Chengdun eta beste bat Guangdongen. **Fagor Etxetresnak**-ek, berriz, *joint-venture* bat abiarazi zuen Robam enpresarekin, Txinako merkatuan De Dietrich markako etxetresna elektrikoak komertzializatzeko.

- India: MONDRAGONen bulego korporatibo bat ireki da Punen, **LKS Ingeniaritzarekin** eta **Loramendirekin** partekatuta. Halaber, **Fagor Arrasatek** Indiako Ford hornitu zuen, Chennaiko plantan *blanking line* berri bat jarritz.

- AEB: **Ulma Packagingek** Harpack enpresaren zatirik handiena erosi zuen; **URSSA** siderurgikoa New Yorkeko WTC berrirako enpresa hornitzaile moduan aukeratu zuten; eta **Batz Energyk** 23 milioi euroko eskari bat lortu zuen, Nevadan eguzki planta termiko bat eraikitzeko.

- Brasil: **Fagor Industrialek** eta **Kidek** bulego komertzialak estreinatu zituzten Brasilen, eta **FPK**-k herrialde horretan duen apustu industrial sendotu zuen, inbertsio plan handi bat eginez.

- Mexiko: **Aurrenak**-ek filial berri bat eratu zuen Mexikon.

- Kolonbia: **LKS Ingeniaritza** bulego berria ireki eta herrialdean kokatu zen.

- Europa: **ORONAK** Europan duen presentzia sendotzeko helburuarekin jarraitu zuen, eta Altlift Igogailuak frantziar taldea eta Elevator As norvegiar konpainia eskuratu zituen. **Maierrek** ere Cromoplastica italiar enpresa erosi zuen, eta **Danobatek**, berriz, lantegi berria ireki zuen Alemanian; **Soralucek** 6,2 milioi euro inbertitu zituen Alemanian dituen instalazioak zabaltzeko.

MONDRAGON Korporazioa atzerrian 105 filial produktibo izatera iritsi da.



Egindako **inbertsioen** zifra 307 milioi euro izan da, hau da, 2011n egindakoena baino % 8 gutxiago, inbertsioa eskaerari egokitzearen ondorioz.

Beste urte batez, MONDRAGONek **berrikuntzaren** alde egiten jarraitu du. Horren erakuslea da 2.096 pertsona ari direla dedikazio esklusiboarekin ikerketan lanean, hainbat teknologiatan espezializatutako hamabost zentroetan, **Mondragon Unibertsitatean** eta industri kooperatibetan; horrez gain, 2012. urtean 160 milioi euro bideratu dira I+G jardueretara. Kontuan hartu beharreko beste datu bat da Industria Arloak 2012an egin zituen salmenten % 19 aurreko bost urteetan ez zeuden produktuak eta zerbitzuak izan zirela.

2011ko ekitaldian **Orona IDEO-innovation city** aurkeztu zen, hau da, hiri mugikortasun iraunkor eta beregainerako Europako ikerketa eta berrikuntzako lehenengo zentroa. Proiektuaren aurrerapen maila bat dator aurreikusitako egutegian zehaztutakoarekin eta, ondorioz, 2013ko irailean **Mondragon Unibertsitatea** ekoingeniaritzako bi gradu berri ematen hasiko da **Orona Fundazioan**.

Horrez gain, 2012an zehar **negozio berrien sustapenera** zuzendutako atalean, aipatzekoa da MONDRAGON Eko abiarazi dela, hau da, *Green Economy*-aren arloko plataforma



■ Filial produktiboak (105)  
 ■ Ordezkariak korporatiboak (9)

korporatiboa, proiektu traktorean bultzatzeko helburua duena, Korporazioaren eta kooperatiben multzoan balioa sortzeko, betiere haztera eta enplegua sortzera zuzenduta.

Bere ibilbidearen lehenengo aldi honetan, **MONDRAGON Ekok** esparru estrategikoa definitu du, jarduteko lehenasunezko bektoreak zehatzuz energia berriztagarrien arloan, hondakinen kudeaketa eta tratamenduaren arloan eta hirien iraunkortasunaren arloan, eta horietako bakoitzean merkatuentzako proposamen zehatzak garatzen ari da, Korporazioan dauden gaitasunen balioa agerian jarri eta jarduera edo negozio berrien bideragarritasun azterketak eginez.

**MONDRAGON Health**en eremuan, aipagarria da **Fagor Healthcare** abiaraztea, farmazia anbulatorioan


medikamentuak ontziratzeke ekipamenduen salmentarekin, baita ere **Kiro Robotics**, zeinak dagoeneko instalatu duen medikamentuak automatikoki prestatzeko lehen ekipamendua, minbizia duten gaixoen tratamendurako. **GSR-Televida** aldi baterako enpresa elkarrekin (ABEE) Eusko Jaurlaritzarekin zeukan hitzarmena berritza lortu du, telelaguntzako zerbitzua emateko, eta Euskadiko 28.000 herritarri eskaintzen die zerbitzua.

Industria Arloaren **errentagarritasunari** dagokionez, Ebitda 2012an 469 milioi eurora iritsi zen, eta zifra hori Arloko salmenta guztien % 7,8 da.

**Enpleguari** erreparatuta, Industria Arloan urtean zehar batez beste okupatuta egon den langile kopurua 36.963 pertsona izan da, eta horietatik 13.903 atzerriko fabrika eta ordezkariak aritu ziren lanean.

**Formazioaren** atalari dagokionez, aurreko urtean 8,7 milioi euro zuzendu dira helburu horretara, hainbat programatan banatuta, arlo teknikoan zein sozioenpresarialean. Alderdi aipagarrienen artean nabarmen daitezke Heziketa Kooperatiboa, 3.048 pertsonak hartu dutena, eta Lidergoari eta Talde Lanari buruzko Prestakuntza, 422 zuzendarik jaso dutena.

**Laneko segurtasunari** eta **osasunari** dagokionez, berriz, helburu nagusiak istripuen indizea jaiste izaten jarraitzen du, eta 1.000 langileko istripuen kopuruaren adierazlea 34,01 izan da 2012an, hau da, aurreko urtearekin alderatuz gero 3 puntuko jaitsiera handia gertatu da. Arlo horretan nabarmen daiteke, baita ere, 33 kooperatiba industrialek OHSAS erreferentziaren arabera Laneko Arriskuen Prebentzio Sistemen ziurtagiria dutela.



2012n Industria Arloaren salmenten % 19 bost urte lehenago ez zeuden produktu eta zerbitzu berriak izan ziren.



Azkenik, kooperatiben **erantzukizun sozialari** dagokionez, eta gure ingurunea egoki kontserbatzeko ardurari dagokionez, adierazi behar da dagoeneko 60 kooperatiba direla ingurumen kalitateari buruzko ISO-14000 ziurtagiriak dituztenak.

## 1. KONTSUMO ONDASUNAK

Krisiak MONDRAGONeko Kontsumo Ondasunen sektoreari erasan dio gehien, batez ere estatuko merkatuaren portaera txarragatik. Fakturazioa 1.245 milioi eurora iritsi zen, hau da, % 6,5eko jaitziera aurreko urtearekin alderatuta. Jarduerak kanpoan hedatzeko egindako ahaleginaren ondorioz, nazioarteko salmentak fakturazio osoaren % 72,6 izan dira.

**Fagor Etxetresna Elektrikoen Taldeak**  
1.167 milioi euroko fakturazioarekin

itxi du ekitaldia, eta horrek esan nahi du % 9ko murrizketa izan duela aurreko urtearekiko. Krisi orokortuaren jokalekuan, Espainian Lerro Zurian duen merkatu kuota % 0,7 handitu du, eta sektoreko fabrikatzaileen artean Europako 5. postua mantentzen du; Espainian duen merkatu kuota % 16,3 da, Frantzia % 14,2 eta Polonian % 7,2.

Etxetresna txikien negozioak (gailu elektriko txikiak eta sukaldeko ontziteria), aldiz, oso emaitza onak lortu ditu. Merkatu horrek Espainian jaitziera izan badu ere, kooperatibak % 11 handitu du bere partaidetza, eta lidergo kokapena finkatu du presio eltzeetan, fakturazioan % 3 hazita. Konfort negozioari buruz, esan behar da portaera positiboa izan duela, nazioarteko salmentak % 10 handitu baititu, eta Ur Bero Sanitarioan (UBS) duen lidergoa sendotu egin baitu.

Espainiar merkatuaren bilakaera txar horrekin alderatuta, nazioarteko salmentak fakturazioaren % 76 izan ziren, eta merkatu estrategikoetan duen presentzia sendotu zuen: Frantzia fakturazioa guztira 449 milioikoa izan da, eta etxetresna elektriko txikietan salmentak % 12 hazi ziren. Polonian bere kokapena mantentzen du, 62 milioiko fakturazioarekin.

Txinan eta Asiako Hego-ekialdean Taldea % 10 hazi da fakturazioari dagokionez, Robam txinatar enpresarekin egindako aliantzari esker, horrek De Dietrich goi mailako marka indartsu sartzeari ahalbidetu baitio; Singapur eta Vietnam bezalako herrietan ere hedapena garrantzitsua da. Errusiako merkatuan Fagor marka sartu du eta, Brandt eta De Dietrich markekin batera, urtearen itxieran salmentak 14 milioi eurokoak izan dira, eta % 50eko hazkundea izan du aurreko urtearekin alderatuta.

2013an hedapenean beste eremu bat gehitu da, Dubain filiala irekitzearen bitartez, De Dietrich, Fagor eta Brandt markak Ekialde Erdialdean komertzializatzeko.

Gaur egun, **Fagor Etxetresna Elektrikoen Taldeak** 13 lantegi ditu 5 herrialdetan: 5 Espainian, 4 Frantzia, 2 Txinan, 1 Polonian eta 1 Marokon, 5 kontinenteetan dituen filialez gain.

Ingurunean aurkako egoera dagoela eta higiezin sektorean, eta ondorioz altzarien sektorean ere, susperraldiaren arrastorik ikusten ez dela eta, 2012an altzariaren jarduera dimentsionatzeko eta sinergiak mamitzeko plan estrategikoa gauzatu du. Horrenbestez, Coinma, Danona eta Fagor Altzarien jarduerak bateratu eta **FGM S. Coop.** sortu da, edonolako inguruneak altzariz hornitzeko soluzio integralak eskaintzen dituen enpresa, izan etxean, sukaldean, hoteletan zein bulegoetan. 2012an zehar produktu eta bilduma berriak diseinatu eta garatzeko lan estrategikoarekin jarraitu zuen, etxerako (egongela eta logela berriak), sukalderako (diseinu berriak) eta bulegorako (zuzendaritza eredu berria), eta Nazioarteko Azoketan aurkeztu zituen, Valentzian eta Orgatecen (Bulegoa, Colonia). Garapen horien eta firma berriaren nazioarteko apustuaren emaitza gisa, hainbat proiektu gauzatu arrakasta komertzial gehiago iritsi ziren, horien artean Ramada Tanger eta Melia Varadero hotelak edo Nivearen bulegoen egoitza nagusia.

Kontsumorako giroa kontrakoa izanik ere, espainiar merkatuan azken lauhilekoan horren eragina argi eta garbi ikusi zelarik, **Orbeak** bere salmenten maila mantendu zuen, planifikatu zituen hazkundeetara iritsi ez bazen ere.

Bizikletaren beraren kanpoko produktuen negozio zifrak gero eta partaidetza handiagoa izateak -hala nola kaskoak, triatlonerako neoprenoak, ehungintzako produktuak,

etab.- garatzeko aukera duen proiektu bat dagoela erakusten du.

**Dikarren** aurreko urtean markatutako ibilbidea berretsi da, atzekargako merkatua nabarmen finkatu baita, eta horri aurrekargako USAko merkatuan izandako hazkunde naturala gehitzen bazaio, emaitza da salmentak % 14 hazi direla.

Ondorioz, BERGARA marka berria erreferentzia izaten ari da Europako eta Amerikako arma merkatuetan, amerikar merkatuan dagoeneko finkatuta dagoen aurrekargako CVA markarekin batera.

**Ereduk** indarrean jarraitzen du esportazio merkatuetan, eta horiek bere salmenten % 65 dira. Hala eta guztiz ere, sendotasun horrek ez du galarazten *contrac*-ak espainiar merkatuan izandako jaitsiera handiak salmentei eragitea, % 10 murrizteraino.

ENE markaren inguruan proiektuak lortu duen sendotasunak, nazioartean banaketa sare garrantzitsua duelarik, datozen urteetan baikorrak izateko motiboa ematen du.

**Oiarsoren** erronka nagusia ospitaleetan erabili eta botatzeko produktu multzoetan eskaintza sendoa osatzea da.

Osasunaren sektorean, **Ereduk** eta **Oiarsok** nazioartekotzea garatzen jarraitu dute, BEXEN markaren bidez. Bereziki **Osatuk**, R800 ekipamenduan oinarritutako desfibriladoreen plataforma berriak amaitu eta bere katalogoa finkatu baitu; horrek datozen urteetan merkatuan gehiago sartzen lagundu behar dio, horrelako ekipamenduen sektorean katalogo osatua eskaintzeko.

## 2. EKIPU ONDASUNA

Ekipu Ondasunen sektoreak 1.165 milioi euro fakturatu zituen eta, horrenbestez, % 4,5eko hazkundea izan zuen aurreko ekitaldiarekiko; nazioarteko salmentei



dagokienez, salmenta guztien % 79,6 izan ziren.

**Automatizazioan** eta **Kontrollean**, 2012koa ekitaldi zaila izan da **Fagor Automation** entzat, eta salmentak aurreko urtean baino % 2 gutxiago izan dira. Emaitza honetan erabakigarria izan da Txinako eta Brasilgo merkatuetan % 20ko jaitsiera egon dela, kapital finkoaren formazioa gelditu egin delako, eta hori hein batean konpentsatuz





kanpoko gainerako merkatu ia gehienetan igoerak gertatu dira, aurrerapenik handiena lortu dutenak Ipar Amerika eta Korea izanik.

Laburbilduta, salmentak nabarmen urritu dira BRIC herrialdeetako hirutan, adituek urtearen hasieran egin zituzten proiektzioak kontraesanean utzita.

Horrez gain, balantze moduan, **Fagor Automation**nek 2012an honako mugarri hauek jarri ditu:

- Ivrea fresatzeko makinarako (Italia) software berezia garatzeko ekipamendua finkatzea; horren lehenengo bertsioa arrakasta handiz aurkeztu zen Milango azokan.

- Beijingen aplikazioen lehenengo ekipamendu lokala osatzea.

- TÜV ziurtagiria lortzea AXD.SPD erregulagailuen familiarako.

- Japonian atzipen produktuk banatzeko hitzarmena sinatzea.

- Prestazio berriak gehitzea: HSC, Fine Tuning, Telediagnosia, kontrol plataforma aurreratuetan.

- *Encoder* lineal absolutuen eskaintzan mundu mailako lidergo teknologikoa mantentzea, 42 m-ra arteko makinaren instalazioekin.

- Hirugarrenekin hitzarmenak egitea haien gailuetan Fagor Protokolo digitala den Feedat gure atzipen sistemekin integratzeko.

2012. urteak “Eguzki Negozioa” finkatzea ekarri du **Mondragon Assembly**rentzat, munduan zehar lerro osoak salduz. Halaber, Europa erosle gisa eta Txina hornitzaile gisa gelditu izanak energia berri horrekin oraindik konektatu gabe zeuden beste herrialde batzuetan sartzeko atak ireki ditu. Horregatik, **Mondragon Assembly** negozio horretan herrialde horietan ager daitekeen edozein aukera aprobeztatzera bideratu ditu bere ahaleginak.

“Makina Berezien” negozioaren bilakaerari dagokionez, positiboa izan da, bere bezeroek **Mondragon Assembly**ren makinak beste herrialde batzuetan dituzten lantegietara esportatzen dituztelako, hala nola Txinara eta Brasilerara. Horrenbestez, bere makinak Europako lantegietan saltzeaz gain, munduan barreiatuta dauden beste planta batzuk ere hornitzen ditu.

**Mondragon Assembly**ren hiru produkzio zentroak Alemanian, Frantzia eta Mexikon daude, eta urtean zehar joera onarekin portatu dira, eta horri esker bere bezeroei egiten dien eskaintza global multilokalizatua hobetu ahal izan du.

**Txirbil harroketako makina-erremintetan, DANOBATGROUP**ek ekitaldi ona osatu du berriro ere, eta errentagarritasun ona lortu du.

Eskariak fakturazioa baino handiagoak izan dira eta, ondorioz, eskari zorroa berriro handitu da; eskarien eta fakturazioaren zifrak, halaber, aurreko urtekoak baino hobeak izan dira.

Eskarien jatorriari dagokionez, Alemania dago berriro ere lehen postuan, atzetik Txina, USA, Erresuma Batua eta Brasil dituela.

**Berrikuntzaren** arloan, 2012. urtea ere oso urte bizia izan da, teknologia aurreratuko produktuak merkaturatu baitira, horien artean mandrinatzeko makinaren familia berria, tornu bertikal handiak edo laser bidez josteko makina,

eta erreferentziak bezeroekiko lankidetzara areagotzen jarraitu da, energia sortzeko turbinen osagaiak artezteko soluzio espezializatuak garatzeko, trenaren bogie-aren saiakuntzarako edo konpositezko pieza handiak fabrikatzeko.

**IK4-Idekok**, berriro, epe ertain-luzerako ikerketan jarraitzen du, tren gurpilak edo haize erroten ikuskatzeko eta neurketak egiteko teknologietan lan egiten, fabrikaziorako baliabideen etorkizuneko iraunkortasuna hobetzeko mekanizazio makina eta prozesuetan lan egiten, edo **MONDRAGON Health**ekin batera, medikuntza erregeneratiboko osagaiak fabrikatzeko ekipamenduetan.

Beste urte batez, **Soraluce-Bimatec** (Alemania), **Danobat-Overveck** (Alemania) eta **Danobat-Newall** (Erresuma Batua) filialek bilakaera ona izan dute, eta Soralucren Alemaniako filialean egindako 6 milioiko inbertsioa nabarmentzen da, instalazioak zabaltzeko eta mandrinaketa-fresaketarako zentro teknologiko bat sortzeko.

Puneko (India) lantegi berriaren eraikuntza ere amaitu da; bertan indiar merkatura zuzendutako makinak fabrikatuko dira, eta laguntza teknikoa ere emango da.

**DANOBATGROUP-Erussia** eratu da, eta Txinan *joint-venture* bat sortu da herrialde horretan tren sektorerako zuzendutako hainbat modelo fabrikatzeko.

**Deformazio bidezko Makinerian**, automobilgintza eta siderurgiaren sektoreetan inbertitzeko prozesuan jarraitu da, eta horrek ahalbidetu dio **Fagor Arrasateri** azken urteetan abiarazitako hazkundearen bidean jarraitzea eta beste maximo bat ezartzea eskari berriak atzitzeari dagokionez.

**Automobilgintzaren Negozioak** arrakastaz osatu du 2012. urtea, Hegoafrikako VW etxean *Wabe Line*



izeneko produktu berritzailea ezarri, eta horrenbestez etengabe lan egiten duten prentsa robotizatuen lerro bat instalatu duen mundu mailako lehen enpresa bihurtu da. Nabarmentzekoak dira, halaber, lehenbiziko aldiz OEM bati serboprentsa bat eman zaiola, uztartutako bi transfer prentsa estanzazio sistema berritzaile bat fabrikatu dela, eta beroan estanzatzeko lehendabiziko bi eskaerak fabrikatu direla; horiei esker, **Fagor Arrasatek** teknologia berri bateko lehenengo erreferentziak bereganatu ditu, eta etorkizuna oso esperantzagarria da. Serbo teknologia garatzen jarraitu da, baita transfer produktua bilakatzen ere, kadentzian hobekuntzak lortzeko.





Horri guztia erreparatuta, zalantzarik gabe, esan daiteke **Fagor Arrasate** gaur egun mundu osoan sektorean errekonozimendu handia duen fabrikatzailea dela.

#### **Siderurgiaren Negozioaren**

balantzea arrakastatsua dela esan daiteke, eta atzipen berriak lortu ditu, bai bezero tradizionalen aldetik bai bezero berrien aldetik. Altzairu eta aluminiotarako *servoblanking* baten lehendabiziko eskariaren ezarpena egin da, eta horrek funtsezko erreferentzia bat sortu du etorkizunera begira. *Rolling* eta *processing* produktua indartzen jarraitu da, eta maila komertzialean bultzada handiagoa eman zaio Txinako

estrategia komertzialari. Produktuari dagokionez, *servoblanking*-etan, arrabol ziklikoetan eta trokeletan egindako garapenak aipatu behar dira. Gainera, ekitaldian zehar *retrofitting* jarduera ere nabarmen handitu da.

#### **Etxetresna Elektrikoen Negozioak**

jauzi kualitatiboa eman eta mundu mailan presentzia handiagoa lortu du; horrez gain, historikoki presentziarik izan gabeko fabrikatzaile askorengan kokapena hobetzea lortu du. Electrolux, BSH eta Whirlpool bezalako bezeroen arteko kokapena hobetu da, eta hainbat herrialdetako bezerogaiak bisitatu dira, horien artean Hego Amerika, Turkia eta Txinakoak. Produktuen garapenak

batik bat CNC tolesteko makinaren esparruan hobekuntzak egitera eta trokel oszilatzaileak modularizatzen zuzendu dira.

Azkenik, aipagarria da Txinako fabrikak berriro ere errekorra lortu duela jarduerari zein enpleguari dagokienez, eta **Fagor Arrasatek** herrialde horretan duen ahalmen produktiboa areagotzeko proiektua ere abiarazi da. Horrez gain, urtean apustu garrantzitsuak egin dira etorkizunera begirako inbertsio produktiboetan, eta horien artean nabarmen da mandrinatzeko belaunaldi berriko makina baten inbertsioa, egitura handiak mekanizatzen.

**Packagingerako Makinerian**, arlo komertzialean, **ULMA Packagingek** Brasil, Mexiko, Polonia eta Errusiarako lortu dituen eskari onak aipatu behar dira. Bereziki elikaduraren inguruko sektoreetara zuzentzeko lanean aurrera jarraitu da, baita lehen mailako bezeroak atzitzeko zereginetan ere. Hala eta guztiz, urtea oso zaila izan da. Inbertsioetan geldialdi handia gertatu da, bereziki haragiaren sektorean, eta jarduera eremu hori oso garrantzitsua da **ULMA Packagingentzat**.

*Bakery* sektorean lan sistemakoari ekin zaio eta, 2012an atzipen kopurua asko igo ez bada ere, **ULMAk** sektorean duen jarduera nabarmen handitu da, eta azkenean, 2013aren hasieran, mundu mailan esanguratsuenetakoa den ekoizle batetik oso eskari garrantzitsua lortu da.

Antolamenduari dagokionez, nabarmentzekoa da ekoizpena doitzeko proiektuak aurrera egin duela, prozesuen automatizazioan, kalitatean eta bulego teknikoaren produktibitatean hobekuntzak eginez.

Arlo estrategikoan eta gestio ereduaren arloan, hausnarketa estrategikorako jardunaldiak egin dira UPA, TF, FP, FE lerroetarako eta **Precinnoxen** jarduerarako, produktua/merkatua

kokapen estrategikoa definitzeko eta etorkizunean erantzun beharreko erronka nagusiak definitzeko helburuarekin.

Ontzi termoplastikoetarako putz egindako estrusio bidezko makineriari dagokionez, **Urolak**, ontziratzeke soluzioak ematera zuzendutako hiru negoziorekin, datu positiboekin amaitu du urtea, ingurune ekonomiko orokorra oso konplikatua izan den arren.

Plastikoaren Eraldaketaren Dibisioaren emaitza positiboa nabarmendu behar da, negozioa berregokitu eta gero, baita Makineria Dibisioak nazioarteko herrialde estrategikoetan duen jarduera finkatu dela (Errusia, Hegoafrika, Txina...). Norabidetze estrategikorako lanak aukera eman du produkzio lerro bereko enprekin aliantza garrantzitsuak egiteko, merkatuaren zaintza lehiakorrerako prozesu bat ezartzea ahalbidetu du

eta produktua berritzeko estrategia definitzea ekarri du.

**Konformazio eta Mihiztaduran**, 2012. urtean eskarien atzipen maila ona izan eta gero, 2013. urteari begira trokelgintzaren sektorean zalantza gehiago daude.

Azpimarratu beharreko beste alderdi bat da **Batz Sistemen** filialak finkatu egin direla, Txina eta Mexikon asko hazita eta Igorren mantenduta; Energy negozioa berrindartu egin da. **FPKn** ere hazkunde garrantzitsua gertatu da, **MB Sistemetan** atzipen maila ona lortu da eta, ondorioz, 2013. urtea ona izango dela iragar daiteke.

**Fundizioan eta Tresnerian, Loramendik eta Aurrenak**-ek 2012. urtean emaitza bikainak lortu eta gero, 2013. urtean ere erregistro onak espero dira atzipenean, salmentetan eta emaitzetan.

**Kameren Ekipamendu eta Eraikuntzaren** atalean, **KIDeK** nazioartean finkatzeko prozesuarekin jarraitu zuen, bereziki zentratuta Kunshanen duen lantegian (Txina), baita ere aurrerapen nabarmenak eginez Portugal, Errusia eta Ingalaterran, izan ere herrialde horietan ere erreferente izaten hasi da hotz kameren munduan.

Halaber, **industri hozkuntzaren** negozioa pisu espezifikoa garrantzitsua izaten hasi da. Giltza eskurako hozkuntza plantak eraikitzeke proiektuen negozioan lehendabiziko emaitzak lortu dira, Aljerian proiektu garrantzitsu bat sinatu baita.

**Fagor Industrialarentzat**, 2012. urtearen ezaugarria izan da salmenten hazkundea % 15 baino handiagoa izan dela Amerikan eta Asian, baina hori ez da nahikoa izan bere merkatu nagusia den Europaren % 5eko galerak





berreskuratzeko. Espainia izan da, batik bat, oraindik ere salmentetan % 40ko pisua izanik, % 12ko murrizketarekin enpresaren hazkundera zapuztu duena.

Nazioartean komeni da nabarmentzea USA eta Asiako hego-ekialdea bezain merkatu lehiakorretan % 20 baino gehiagoko hazkundera egon dela, eta Japonia bezalako merkatuetan ere sartu dela.

Produktuari dagokionez, 2012an labeen belaunaldi berria abiarazi da, hedatzeko aukera handiekin, amerikar egosketaren gama ere finkatu da, eta hozte gama guztien posizionamendua hobetu da. Halaber, Mexikoko planta zabaltzen hasi da, eta biraketa baxuko garbigailuen gama berri baten garapenari ekin dio, gorabideko herrialdeetarako.

Beste proiektu garrantzitsu bat da Oñati, Mexiko eta Lucenako fabriketan

lehiakortasuna hobetzeko plana hastea, kostuan eta kalitatean helburu handiak dituen; horrek marka kokatzeko hobekuntzak ekarriko ditu datozen urteetan.

**ULMA Agricolan** kanpoko merkatuetako salmentak handitu egin dira, bereziki Erdialdeko eta Ipar Amerika inguruan, eta aldi berean merkatu nazionaletan eroriko handia nozitu du.

**Eclipse garapenaren** barruan, **Neikerrek** Derion (Bizkaia) dituen berotegietan egindako landa proben emaitza positiboak bat datoz kalkulu teorikoetan lortutakoekin, baina komenigarritzat jotzen da panelen diseinu fisikoa birplanteatzea, hobeto irauteko eta mantentze lanak hobeto egiteko.

Giltza eskurako hainbat proiektu gauzatu dira, Erdialdeko Amerikan, egiturak, ureztatze sistema, klimaren inguruko osagarriak eta instalazioaren automatizazioa guztiz integratuta. Asiako herrialdeetan komertzializatu diren erreferentziak gehiagotu egin dira.

**Garraiagailuetako Osagaiei** dagokienez, 2012. urtean **ULMA Conveyor Components**en Prozesu bidezko Kudeaketarekin egindako aldaketak emaitzak ematen hasi ziren. Nazioarteko salmentarako sareak finkatzeko lanean jarraitu zen, eta funtsezko herrialdeetan homologazio garrantzitsuak lortu ziren. Produktuari dagokionez, exijentzia goreneko produktuen bilakaera birdiseinatzeke lanean jarraitu zen.

Atzipeari erreparatuta, 2012 urte ona izan da, 2011ko joerari eutsi egin baitzaio, merkatu nazionalen haziz, 11,6 milioi eurora iristeraino, eta merkatu internazionalan oso portaera desberdinarekin.

Azkenik, **ULMA Handling Systemsek** (UHS) bere hedapenarekin eta hazkunderarekin jarraitu du nazioarteko merkatuetan; bertan, Handling Systems Materiako soluzio integrala eskaitzen du, merkatuaren eskakizunik zorrotzeneri erantzuteko. Horrez gain, azpimarratzekoa da

nazioartean aireportuen sektorearen barruan bere lehenengo instalazioak saldu eta gauzatu dituela, **UHSk** balio handiko soluzioak eskaintzen dituelarik ekipajearen tratamendurako sistemetan.

Estatu barruan, UHSk antolatzeke egitura berri bat garatzen eta finkatzen aurrera egin du, bezeroarengana orientatua erabat. Tresna horren abiapuntua hainbat negozio lerro dira, eta bezeroen beharrei erreparatuta bere barne betekizunak ezartzen ditu, proiektuen fase guztietan aplikatzeko.

### 3. INDUSTRIA OSAGAIK

**Industria Osagaien** sektoreak 2.170 milioi euro fakturatu zituen, aurreko ekitaldian baino % 1,5eko atzerakadarekin. Nazioarteko salmentak totalaren % 72,1 izan ziren.

Ibilgailu elektrikoaren esparruan, beste urte batez Range Extender eta "Plataforma errodartzailaren" inguruan fokalizatutako proiektuak garatzen jarraitu da, garapeneko ingeniarien formazioa eta prestakuntza handituz, Mondragon Automozioiko Zentro Teknologikoan bitartez.

**Automozioiko Osagaien** arloan, joera orokorra positiboa izan den arren, Europa Mendebaldean murrizketa handia gertatu da, eta hori da gure merkatu nagusia. Produkzioa % 10 uzkurdu da eta gure jarduera % 2 murriztu da, baina erreferentzi maila hobetu egin da, modeloak hobeto kokatu direlako eta beste merkatuetan dugun presentzia handitu delako.

Nazioarteko hedapenak bilakaera positiboa izaten jarraitu du, eta 4 planta berri ireki dira, hau da, maila globalean 21 filial produktibo daude guztira.

**Fagor Ederlan Taldeak** 648 milioi euroko salmentekin itxi zuen 2012ko ekitaldia, 2011n baino % 8 gutxiagorekin; nazioarteko salmentak dagoeneko fakturazioaren % 73ra iritsi dira, eta bere atzipean eritmoak segurtatu egiten du 2012ko salmenten mailak gutxienez 2016ra arte iraungo duela.



**Fagor Ederlanek** etorkizuneko bi apustu garrantzitsurekin osatu zuen ekitaldia: **Fagor Ederlan Tafallaren** moldeatzeko lerro berria, eta aluminiozko mangeta euskarrien lantegi berria, Txinan, **Fagor Ederlan Autoparts Kunshanen**.

**Fagor Ederlan Tafallako** moldeatzeko lerro berria martxan jartzearen helburua kooperatibaren enpresa proiektua finkatzea da, eta, horrenbestez, Tafallako lantegia European sektorean teknologikoki aurreratuenen dauden artean kokatu da.

Nazioarteko hazkundera Taldeak Txinan martxan jarri duen **Fagor Ederlan Autoparts Kunshan** planta berriarekin indartu da; inaugurazioa irailean egin zen, eta mugarri bat ezarri zuen **Ederlan** Asiako merkatuan egiten ari den eskaintza globalean.

Bi apustuatarako 47 milioi euro baino gehiago inbertitzeko ahalegina egin behar izan da, eta ahalegin hori da hain zuzen 2012ko ekitaldian nabarmentzekoa, nazioarteko hazkunderari eta aurrerapen teknologikoari dagokienez.

Halaber, aipagarria dira automozioaren sektorearen produktu lerroetan egindako aurrerapenak, horien artean egonik aluminiozko mangeta euskarriak: jarduera horretan 3 proiektu abiarazi ziren sektoreko *premium* fabrikatzaileentzat, eta ondorioz talde kooperatiboa % 30eko merkatu kuotaekin kokatu zen European.

**Powertrain** arloak **Fagor Ederlan Slovenskoren** jardueraren hazkundera sendotu zuen, % 15eko jauzia emanez ahalmen produktiboan, eta epe luzera etengabe hazteko planekin.

Azkenik, **Fagor Ederlanek** uraren negozioaren inguruan modu proaktiboan jarduera berriak sortzeko duen apustua azpimarra daiteke, lankidetzaren bidezko ekimenen bitartez; horien artean dago **Fagor Arrasaterekin** batera abiarazi duena, **Fagor Edergarden**, kooperatibaren hurrengo ekitaldietan garapena ikusiko

duen beste batzuekin batera.

**Mapsak**, zailtasun handiko hainbat ekitaldi igaro ondoren, eta 2011n oreka lortu eta gero, bere kokapena finkatzen jarraitzen du, emaitzak nabarmen hobetu baititu.

Bere hazkunderarekin jarraitu du, bereziki balio erantsi handiagoa eta zorroaren dibertsifikazioa ekarri dioten bezero berriekin. 2013ko aurreikuspena da hazteko joera horretan jarraitzea eta emaitzak hobetzea.

**Ecenarrok** salmenten errekorrekin itxi du urtean, 14 milioi euro inguruko zifrarekin. Horrez gain, pieza estandarren bolumena murrizten jarraitu du, balio erantsi handiagoa duten produktuetan hazteko. Egindako inbertsioak lehen mailako estanziozko produktuak hobetzera zuzendu ziren, eta produktu berriak abiarazteko prozesua birdefinitu du, bezeroen artean dituen proiektu berrien eskakizunak betetzeko.

Datorren ziklo estrategiko berrirako, salmentak nabarmen haztea espero du, eta Ecenarro automobilgintzaren merkatuan finkatzea, hotzeko estanziozko oinarritutako pieza bereziki industrializazioaren erreferentzia gisa.

**Maierekin** osatu duen ekitaldiaren erdigunea eskaintzeko produktuaren eskari zorro handia bultzatzea izan da, eta horretarako inbertsio prozesu sakona gauzatu du, datozen urteetan jarraituko duena, negozio bolumena nabarmen handitzeko.

**MTC Zentro Teknologikoaren III. Plana** diseinatu da, apaingarri eta estetika berrietan aurrerapenak egiteko, sektorean enpresak duen erreferentziatzeko profila indartzea lortzeko.

Nazioartekotzearen barruan, Italian enpresa bat eskuratu du eta Txekiar Errepublikan eta Indian lantegi berriak handitzeko lanak garatu ditu.

**Cikautxok** oso ekitaldi positiboa egin du, eta negozioa % 8 handitu da, gero eta handiagoa den globalizazio prozesu baten bitartez eta soluzio berritzaileen eskaintza baten bitartez, bai produktuei dagokienez, bai industrializazio prozesuei dagokienez.

**Cikatek Zentro Teknologikoaren** proiektua osatu da, eta bertan elkartuko dira enpresak Berrikuntzaren eta Garapen Teknologikoaren esparruetan egiten dituen jarduerak, hastapeneko indargune handi batekin, 20 ikerlari sartuko baitira.

Globalizazio prozesuak aurrerapen esanguratsua egin du, Errumanian eta Mexikon ezartzeko aurki gauzatu diren proiektuak egin baitira.

**FPK** urte honetan eskari atzipen handiagatik nabarmendu da: horrek aukera emango dio datozen urteetan bere negozio zifrak abiarazteko. Halaber, lankidetzaren bizian aritu da erakunde berri bat eratzeko, kudeaketa komertziala eta garapen teknologikoaren kudeaketa bere negozioa garatzen duten Alemaniako eta Brasilgo plantekin koordinatzeko.

**Batz Sistemek** nazioarteko garapenarekin jarraitu dute, arreta Txinako merkatuan jarrita bereziki, bertan ezartzeko bi proiektu berri gauzatu baitira. **Eguzki Energia Termikoaren** negozioak bilakaera positiboa izan du urtean, hainbat proiektu eginez.

Osagaien negozioen eta **FPK**ren arteko lankidetzak erakunde baten eraketarekin izan du jarraipena, eta hori esker **Light Weight Technologies** negozioa finkatzea espero da.

**Etxetresna Elektrikoetako Osagaietan**, 2012ko salmentek aurreikuspenak bete dituzte, eta aurreko urtekoak baino pixka bat beherago kokatu dira. Etxetresna elektrikoaren sektorea uzkuratu egin da, European batez ere, eta hazkundera krisia gorabehera garapen erritmo jarraitua mantendu duten



herrialdeetan kontzentratu da. Eta merkatu horietan hazi dira hain zuzen ere Dibisioaren negozioak.

Horrenbestez, 2012ko ekitaldia ontzat eman daiteke, eta Osagaien Dibisioak nazioartean duen kokapen garrantzitsuan bermatu dela esan daiteke. Bereziki bere marka liderren bitartez, sektorearen eragile nagusien artean beren kokapena mantendu edo hobetu egin dutelako.

Ekitaldiaren beste ezaugarri bat izan da Iberiar Penintsulan zentratuta dauden negozioek bilakaera apalagoa izan dutela. Are gehiago etxebizitzari eta etxeen eraikuntzari lotutako negozioetan.

Halaber, energia berriztagarriei lotutako negozioek ere hazteko zailtasunak aurkitu dituzte, sektorearen atoniaren ondorioz, bai merkatu nazionalan bai internazionalan. Horrek

mikrosorkuntzara zuzendutako **EHE** proiektua amaitzea ekarri du.

Hainbat negozio eremutan, ordea, urtean zehar aurrerapen nabarmenak egin dira. **Ceramaten** erregailuak bere kokapena hobetu du, eta berdin plastikoaren injekzioan diharduten negozioek ere, automozioan lekua bereganatzen ari baitira.

Horrez gain, automobiletako hainbat aplikaziotan ezartzeko sistema elektronikoen soluzioetan ere aurrera egin da, esaterako, automobilerako direkzio elektrikoan, birkargarako habeetan, etab.

Azkenik, Dibisioaren negozio nagusiek nazioartekotzeko estrategia indartzen jarraitu dute, progresiboki kokapena lortuz etorkizun hurbilean kontsumoaren eta baita ere beren osagaiak erabiltzen dituzten gailuen produkzioaren zati handi bat

kapitalizatuko duten merkatuetan. Kasu askotan, bezero estrategikoen eskutik, eta baita ere merkatu berri horiek garatuz. Gaur egungo kokapen industrialia hil edo biziko palanka da datozen urteetan garatzen jarraituko duen erronka horretarako.

Petrolio-gasa prozesatzeko, planta petrokimikoetarako eta energia sortzeko hoditerietarako **Brida eta Forjako Osagaietan, ULMA Pipingek** ekitaldi ona egin zuen merkatuaren egoera kontuan hartuta, eta 123 milioi euro fakturatu zituen, hau da, aurreko urtean baino gehiago. Nazioarteko salmentak salmenta guztien % 96,5 izan dira.

2012. urtea EPC Dibisioa (Proiektuak) behin betiko finkatzeko urtea izan da, ingeniarietzi zuzenean erantzuteko, horiek urteko salmentetan dagoeneko presentzia handia lortu dutelarik, % 20 inguru; halaber, bere produkzioaren gama osatu du, **Ulma Lazkao Forging** martxan jarritz, hau da, gaur egun bere jardueran integratuta dagoen forja berria, material bereziak, lote txikiak eta ekoizpen malgua lantzen dituenak. Halaber, 2012. urtean *piping* produktu forjatu berezienen munduan indartsu sartzen hasi da, bridetatik harantzago.

Kobre eta aluminiozko **Eroale Elektrikoetan, Ederfil-Beckerrek** ekitaldirako aurreikusitakoa bete zuen salmentei dagokienez, egia bada ere urtearen azken zatian automozio osagaien fabrikatzaileen jardueran izandako murrizketak eragin egin ziola.

Balio erantsi handiagoko sektoreetan sartzea ere aukera ezin hobetzat hartzen da, urte hauetan lortutako ezagutza teknologikoaren maila eta zerbitzurako ahalmena aprobetxatuz. Automozioaren sektoreak kalitate eta espezifikazio eskakizun zorrotzak ditu, eta kooperatibarentzat potentzial nabarmena dauka.

Transformadoreen arloan, bigarren urtez jarraian, **Alkargon** ez da inbertsiorik egon espainiar sektore elektrikoan. Salmenten jaitsiera handia



oraindik ezin izan da nazioarteko merkatuen jarduerarekin konpentsatu.

Bere lantegi berria amaitu izanak 60 MVA arteko transformadoreak fabrikatzea ahalbidetzen dio, eta kokapen hobean jartzen du etorkizunari begira. Azpimarratzekoa da saiakuntzetarako laborategi berria, 6 milioi euro baino gehiagoko inbertsioarekin, izan ere, Europako onenetakoen artean jar daiteke, eta berez jada sektorean abantaila lehiakorra dakar.

**Hertellek**, berriz, beste bultzada bat eman zion kanpoko merkatuetara zabaltzeko estrategiari, eta nazioarteko salmentak % 70 baino gehiago izan ziren; presentzia aktiboa izan du Europar Batasuneko hainbat herrialdetan, hala nola Alemanian, Irlandan edo Eslovenian, eta, aldi berean, Europatik kanpoko beste herrialdeetan ere bere banaketa sarea sortzea lortu du, horien artean Egipto eta Txina, besteak beste.

Etorkizuneko garapenaren ikuspegitik, **Hertellek** eskaintza osatuagoa garatzeko erronkari egin behar dio aurre, zisternan muntatutako hutseko ponpari laguntzen dioten sistemen inguruan. Sistema horiek batik bat nekazaritzan eta garbitasunean aplikatzen dira, eta Hertellek ekipamendu horien fabrikatzaileek ponparen inguruan erabiltzen dituzten muntaketa multzoak osa ditzake. Lortutako ezagutzak eta diseinurako ahalmenak aplikazioen segmentu horiek menperatzea eta eskaintzaren balio erantsia handitzea ahalbidetzen diote.

**Garraiagailuetako Osagai** dagokienez, 2012. urtean **ULMA Conveyor Components**en Prozesu bidezko Kudeaketarekin egindako aldaketak emaitzak ematen hasi ziren. Nazioarteko salmentarako sareak finkatzeko lanean jarraitu zen, eta funtsezko herrialdeetan homologazio garrantzitsuak lortu ziren. Produktuari dagokionez, exigentzia



goreneko produktuen bilakaera birdiseinatzeke lanean jarraitu zen.

#### 4. ERAIKUNTZA

Krisiak sektore honi nabarmen eragiten jarraitu du, bereziki jarduera espainiar merkatura mugatuta duten negozioei dagokienez. Eraikuntzaren sektorean integratuta dauden MONDRAGONeko jardueren multzoak 993 milioi euroko fakturazioa lortu zuen eta, nazioarteko salmentek gorantz jarraitzen dutelarik, bere negozio zifraren % 57,6ra iritsi ziren.

Maila nazional zein internazionalako krisiak gogor jotzen jarraitzen du bateko eta besteko sektoreetan, eta bereziki eraikuntzaren sektorean, baina hala eta guztiz ere **ORONAK** oso ekitaldi ona ixtea lortu du, aurreko urtekoa bezalako zifra lortuta, bai salmentetan bai emaitzetan. Zehazki, 2012ko ekitaldian, **ORONAK** osatzen duen Jasokuntzako Dibisioaren salmentak 569 milioi euroko zifrara iritsi dira, eta emaitzak 83 milioi euro izan dira.



Enpleguari dagokionez, Jasokuntza Dibisioak ekitaldiaren amaieran 4.090 profesionaleko langile talde bat zeukan, eta horien profila gero eta nazioartekoagoa eta Zerbitzura zuzendua da. Finean, Dibisioa berriro ere gai izan da zailtasunez betetako jokaleku bat gobernatzeko, eta horrek aukera ematen dio etorkizunari baikortasunez begiratzen jarraitzeko, egunetik egunera bere kokapen lehiakorra hobetzeko helburuarekin, iraupen lasterketa konplexu honetan parte hartzen jarraitu ahal izateko eta ORONaren presentzia mundu osoaren

testuinguruan bultzatzeko.

ORONA berriro ere hazi da, bai nazioarteko salmentetan bai Zerbitzuetatik datozen salmenten atalean, eta horri esker merkatu nazionalaren egoera makurra konpentsatzea ahalbidetu dio, horren oinarrian dagoelarik eraikuntzaren sektorearen jaitsiera handia, langabezi tasa altua eta kontsumoaren atzeraldi bortitza. Aurrea hartzea, zorroztasuna, eragiketa bakoitzaren eraginkortasuna eta esfortzu handia, horiek izan dira etengabe atzera egiten ari den merkatu baten baldintza txarrei aurre egiteko giltzarriak.

Zailtasunak aukera ere badira, eta ORONAK eraldatu eta bilakatzen jakin izan du, jatorri industrial eta lokal batetik Zerbitzu enpresaren profil internazional baterantz, industri jarduera oso lehiakorrarekin, ingurune multinazional eta hizkuntza anitzeko batean. 2012an zehar ORONAK hiru enpresa berri erosi ditu, bi Frantzian eta beste bat Norvegian, Europan duen presentzia are gehiago finkatzeko helburuarekin.

Berrikuntzaren atalean, eta etorkizunerako apustu saihestezin moduan, **Orona IDE0-innovation city** proiektuak erritmo onean jarraitzen du aurrera egiten, eta 2014ko udaberrian inauguratuko da, ORONaren 50. urteurrenarekin bat eginda.

Berrikuntzaren ekosistema hori erreferentziatzeko leku bihurtu da Europako ikerketaren eta berrikuntzaren arloan, gune berean enpresa, irakaskuntza eta ikerketa jarduera elkartzen direlarik. Horren guztiaren barruan talentuak eta proiektu berritzaileak elkartuz, patente bihur daitezkeenak, berrikuntzak eta hobekuntzak ekartzeko hiri mugikortasunean, irisgarritasunean eta jasokuntzaren sektoreko energiaren kudeaketan.

Orona IDE0-innovation cityren berrikuntza jardueraren parte

hartzaile nagusiek modu sinergikoan funtzionatuko dute. ORONaren jarduera teknologikoaren eragin traktorea lotuta dago **Orona eic (Elevator Innovation Centre)**, **Mondragon Unibertsitate** eta **IK4-Ikerlanekin**, eta kokapen berri horretan aldamenean izaera berritzailea duten enpresak izango dituzte, Gipuzkoako Parke Zientifiko eta Teknologikoaren zabalkundearen barruan.

Proiektua denontzat zabalik dago, eta denon babesa behar du, gaur abantaila lehiakorra eta etorkizuneko belaunaldientzako legatua izango den berrikuntzaren hiri hau bikain notarekin osatzeko.

Jasokuntza Dibisioa lider moduan kokatuta mantentzen da hiri irisgarritasun eta mugikortasuneko soluzioei dagokionez, maila nazionalean zein internazionalen. Ildo horretan, besteak beste, egindako instalazio hauek nabarmen daitezke: Bartzelonako Metroa, Madrilgo Prado Museoa, Kanarietako Tablero Merkataritzagunea, Bruselako Metroa, Belgikako Flanders Museoa, Frantziako Clermont Ferrandeko Michelin Estadioa, Irlandako hainbat ospitale, Erresuma Batuko EICC Biltzar Jauregia, Herbehereetako Ikea, Norvegiako Osloko Unibertsitatea...

Ikuspegi tekniko, profesional eta zerbitzuari buruzko batetik oso zorrotzak diren instalazio horien eta beste batzuen bitartez, agerian geratzen da ORONA lehen mailako erreferentzia dela Premium proiektuetarako jasokuntza sistemetan, betiere zerbitzuko estandarrik zorrotzenekin, eta Bezeroari Zerbitzu integrala emateko eskaintza batekin.

**Eraikuntzarako Sistema Industrializatuei** dagokionez, **ULMA Construccionei** 2012. urtean 313 milioi euro fakturatu zituen, hau da, aurreko urtean lortutako zifra baino zerbait gutxiago, nazioarteko salmentetan gora egin badu ere, horiek dagoeneko negozio zifraren % 78 baitira.



**Eraikuntza metalikoetan, URSSAk** ekitaldi zaila izan zuen, munduko eszenatoki ekonomikoaren atoniak eskarian eragindako jaitsieraren ondorioz.

Aurreko ekitaldian lortutako proiektu berezien artean honako hauek nabarmen daitezke:

- Industria Eraikuntzan: galdararen euskarria Kogeban Biomasa Kosorkuntzako Zentral baterako, Nestlen (Frantzia); Ingalaterrako Oxfordshire eta Sita Suffolkeko errauskailuetarako bi galdara-eraikin.

- Hiri Eraikuntzan: ORONaren “Zero Eraikina”, Galarretan; Parisko Jussieu Unibertsitateko Campuseko ekialdeko errehabilitazioa; Nizako Estadioaren estalkiaren egitura eta Limogesko “D’Honneur-Beaublanc” estadia, baita “Arena da Amazonia” estadia ere, Manaosen.

- Zubiak: Bowstring zubi bat Lacourt Saint-Pierren eta 3 zubi LGVrentzat Tours-Bordeauxen (Frantzia); zubi bat Escales-Engordany (Andorra); Ter ibaiaren gaineko zubi bat Gironan eta 2 biaduktu Fornellsen, Gironan.

- Ekipo Ondasunak: 2 Portainer garabi Sineserako (Portugal), 1 Portainer Ambereserako (Belgika) eta 5 Transtainer garabi Teneriferako, baita elur jausien aurkako egitura tubular bat ere, Reinerako (Norvegia).

Halaber, **URSSAk** 2012an Portainer eta Transtainer garabiak diseinatzen dituen Paceco® España SA enpresa erosteko prozesua amaitu zuen.

**Eraikuntzarako Aurrefabrikatuei** dagokienez, **ULMA Architectural Solutions** salmentetan 2012ko Gestio Planaren % 82an kokatu zen, eta horren arrazoia izan da, etxeko merkatuan eraikuntzaren sektorearen jardueraren bortizki murriztea ez ezik, Europar Batasuneko hainbat herrialdean ere jaitsiera handia gertatu dela, horien artean Italia, Irlanda eta Zipre, eta Frantzia

moteldu dela. Ondorioz, ekitaldiko emaitzak negatiboak izan dira, doikuntzak egiteko bateko eta besteko erabaki irmoak hartu diren arren.

Plan Estrategikoaren esparruan, 2012. urtean honako jarduerak hauek gauzatu ziren:

- Zeharkako egitura guztia berrantolatu egin zen, nazioarteko jarduerak komertzialak 10 pertsonara orientatuta.

- Brasilgo filialaren egitura berrantolatzea, eta Frantziako filialean eskualde komertzialak berrantolatzea.

- Marketin Plan bana diseinatzea Txileko eta Italiako banatzaileekin.

- **SPC** Negozio Lerroaren zerbitzuan eredu berria ezartzea, eskaeren arabera lan egiteko soluzio misto batera igaroz, helburu merkatuetan kokatutako biltegietan stockaren kontra produzituz.

- “Kalkulu Hidraulikoaren” tresna lehiakorren garapenean aurrera egitea.

- Eraikuntzako jarduerak Zaharberitzearen segmentura berrorientatzea, Marketin Plan zehatz bat definituta.

Egurra zerratzea eta baso ustiapenera dedikatzen den **Etorkik**, 2012ko ekitaldian, hazkunde handia izan du bere jardueran aurreko urtearekin alderatuta (% 14), batez ere esportazioko salmentetan eta bere jardueraren sektore garrantzitsuen finkapenean bermatuta –esaterako, europaleta–.

2012an zehar, eraikuntza sektorearen ahultasunaren ondorioz, orientazio komertziala industriako enbaltzearen azpisektoreetan zentratu da, bereziki esportaziora zuzendutakoetan.

Halaber, azpimarratzekoa da bere baso ustiapena indartu izana, autonomia maila handiagoa ematen baito lehengaiz hornitzeari dagokionez.

**Lanak** enkofratuetarako zurezko produktuak fabrikatzen ditu, eta zur laminatuzko egiturak diseinatu, kalkulatu eta muntatzen ditu; 2012an bere fakturazioaren bolumena handitzea lortu zuen, % 22 aurreko 2011rekiko, Iberiar Penintsulan eraikuntzaren sektoreak gainbehera jarraitzen bazuen ere eta Europako gainerako herrialdeetan jarduerak motelduta bazegoen ere.

Aurreko urtean bezala, hori hala izateko arrazoiak izan dira Europa Erdialdean eta Ekialdean salmentak handitu direla, Txekiar Errepublikako filialaren bitartez, Afrikako Iparraldean ahalegin komertzial handia egin dela, bere katalogoan produktu berriak sartu direla eta zur laminatuzko egituren negozioak –Elur– aurrera egin duela.

Horri guztiari gehitu behar zaio egitura doitzeko barne mailan neurriak hartzea, gastua kontrolatzea eta barne eraginkortasuna handitzea.

**Coinaldek** edonolako punta eta alambre suberatuak fabrikatu eta saltzen ditu, eta irmo jarraitzen du nazioartekotzearen aldeko apustuan. 2004an produkzio lantegi bat eratu zen Polonian, eta 2012an dagoeneko salmenten % 67 Iberiar Penintsulatik kanpo egin ziren.

Etorkizunera begira esfortzuak bi norabidetan egiten ari dira: merkatu nitxo berriak bilatzea eta herrialdeak eta sektoreak dibertsifikatzea. Horrek guztiak ahalbidetuko dio **Coinalderi** Europan puntun fabrikazioaren sektorean erreferente izaten jarraitzea.

## 5. ENPRESA ZERBITZUAK

Enpresa Zerbitzuen sektoreak 239 milioi euro fakturatu zituen, hau da, % 5 gutxiago 2011rekin alderatuta.

Azken Gestio Planetan deskribatutako inguruneak okerrera baino ez du egin. Egoera makroekonomikoa ikaragarri konplikatu da eta ez du epe ertain-laburrera leheneratzeko



itxurarik. Dibisioko negozio asko mugitu diren merkaturik hurbilenetan minimo historikoetan daude, ia desagertzeraino. Gastu eta inbertsio publikoak ia desagertu egin dira.

Seinaleak guztiz argiak dira. Edo merkatu berrietan sartzen gara, edo arazo larriak izango ditugun urteak etorriko dira. Hori berez ez da nobedadea, orain dela urte batzuetatik ikusten ari zen. Orain dela gutxi arte zalantza zegoen ea egoera benetakoa zen, baina orain errealitateak aurreikuspenak berretsi ditu.

Inguruneak lagundu ez duen arren, ordea, **berrikuntzarako eta nazioartekotzeko** ahaleginek emaitza esanguratsuak izan dituzte. Politika argia da, duela urte batzuk hasitakoa

eta dagoeneko emaitzak ematen ari dena. Ildo horretatik, jarduera gehienetako etekinei eustea lortu da, egoera ekonomikoak nabarmen eragin duen arren.

Izan ere, Dibisioaren jarduerak azken urteetan herrialde berrietara zabaldu dira bere zerbitzuekin, horien artean Txina, India, Kolonbia, Txile, Australia, Aljeria, Maroko... eta balioa agerian jartzeko berrikuntzak etengabeak izan dira.

Zehatzago esanda, **LKS Aholkularitzaren** salmentak 2011. urtekoen % 100era iritsi dira. Aitzitik, ez du lortu aurreko emaitzen mailara iristea, errentagarritasun bikaina mantendu badu ere. Erreferentzia esanguratsuen artean

aipa daitezke RDB Diagnostiko Biologikorako Sarearen Plan Zuzendaria Osakidetzarentzat (laborategiak), bere ERParen diseinua, garapena eta mantentzea, IKT zerbitzuen monitorizazioa eta bilakaera ORONarentzat, eta idazkaritza juridikoko zerbitzuak ematea kooperatiba matrizeentzat, filialak kudeatzeko eta kontrolatzeko orduan laguntzeko helburuarekin.


**LKS Ingeniaritza** % 91n kokatu zen salmentetan 2011rekiko, merkatu nazionalen eraikuntzaren eta obra publikoaren merkatuaren erorikoak eraginda, eta emaitzetan ere jaitsiera nabarmena izan zuen aurreko urtearekin alderatuta. Bereganatutako proiektu eta lorpenen artean nabarmendu behar lirateke Arabako

Foru Aldundiarentzat Vitoria/Gasteizko Buesa Arena zabaltzeko obra zuzendaritza eta laguntza teknikoak, azkenean berriro ireki ahal izatea ekarri duena, **Fotones Taldearekin** lortutako hitzarmena Txilen proiektu fotovoltaikoak sustatzeko, eta, nazioarteko lehiaketa publiko baten bidez, Indiako Chennain Coum ibaia modu integrarean ekoleheneratzeko aholkularitza esleitzea, Tamil Nadu Urban Infrastructure Financial Services Limited etxearentzat.

**Abantail** enpresarentzat nabarmen suspertzeko ekitaldia izan da, azken bolada zailaren ostean. Bezeroak dibertsifikatzen asmatu du, harreman komertzial berri eta interesgarriak hasiz. Horrek ahalbidetu dio salmentetan % 20 haztea, eta azkenean emaitzak aurreko urtekoak baino zertxobait hobeak izan dira. Erreferentzia esanguratsu gisa aipa daitezke produktuaren konfigurazile tekniko PET konpresoretarako, **ABC Compressors SA** etxearentzat, bere Metal Point produktu berriaren formalizazioa **Mecalux**entzako konfigurazile tekniko-komertzialean, eta 3D Web Editorea **Euskadiko Kutxaren** sukurtsalak birmodelatzeko.

**Ondoan** ere oso merkatu komplexuan murgilduta dago, baina bezeroen gero eta eskakizun konplexuagoei malgutasunez erantzuten jakin du. Eskaintza eskaria baino askoz handiagoa da –hurbileneke ingurunean desagertzera doa–, eta prezio borroka latza dago. Hala eta guztiz ere, 2012an salmentak aurreko ekitaldikoen % 96an kokatu dira, eta enpresa emaitzak % 63 izan dira 2011rekiko.

**Mondragon Sistemak** mundu osoan ibili dira bere proiektuekin. Horren erakusle dira Mexiko Hiriko hondar urak arazteko estazioaren automatizazioa eta kontrola, Accionarentzat, txapa kromoztatze giltza eskurako lerroa Brasilen, Arcelor Mittalarentzat, eta portuko edukiontzien



terminalaren automatizazioa Tenerifen, OHLrentzat; horrek guztiak ahalegin handia eginarazi dio proiektuak eta pertsonak antolatzeari dagokionez, eta lanak eman ditu. Salmentak, azkenean, 2011koen % 96an geratu dira, eta emaitza positiboetan geratu da, proiektuetan oso atzipen garrantzitsuarekin, eta 2011. urte konplikaturik bikain suspertuta.

**Mctelecom** eraikuntzaren gorabeheren mende dagoen enpresa izanik, asko sufritu du merkatuaren erorketa, baina proiektu interesgarrietan parte

hartzea lortu du, besteak beste, honako hauetan: gailu elektriko eta elektronikoen hondakinen trazabilitate soluzio bat emateko europar proiektua, RFID teknologien bitartez, Ecolec Sistema Integrado de Gestion etxearentzat; Datacenter, Contingencia eta Networking Cikautxorentzat eta IKT azpiegitura aurreratuetan, ahots eta datu komunikazioak, CCTV IP, megafonia, videowall Central Termosolar Extresol 3 etxearentzat. Dena dela ere, salmentak aurreko urtekoen % 89an kokatu dira, eta 2011n baino emaitza hobeak lortu ditu.





Hezkuntza zerbitzuen eremuan, **Alecop**, egoera zaila izanik ere, bere Heziketa Dibisioan % 5,4 handitu zituen salmentak 2011rekiko, eta hazkunde horren oinarria kanpoko merkatuak (Frantzia) eta Marokoko Kenitrako LH Zentroaren Zerbitzuen-Kudeaketaren hazkundea.

**MONDRAGON Servicios Educativos (MUREkin)** batera partaidetuta enpresak hitzarmenetan nabarmen aurreratu zuen Mexikon eta Txilen Goi mailako Hezkuntza Zentroen artean kokatzeko, eta seguru esan daiteke horiek 2013an kontratu bidez

zehaztuko direla. MSEk partaidetza minoritarioa daukan Universidad Colombiana UNIPANAMERICANAK, berriz, 10 milioi euroko salmentak gainditu zituen, hazkunde handiarekin.

Saudi Arabia eta LH Zentroak kudeatzeko kontzesio batek bereganatu zuen ekitaldiaren bigarren seihilekoan baliabideen eta ahalmenen dedikazio handi bat. Zerbitzuaren negozioak dagoeneko baliabide gehienak inplikatzeko, prestakuntza baliabideen hornitzailearenak ez bezala.

**Mondragon Linguak** ekitaldi bikaina egin zuen, eta nabarmen egin zuen aurrera bere zentro tradizionalen finkapenean, balio proposamenak berritu zituen –berrikuntzaren aldeko apustua– eta Washingtonen bulego komertziala ezarri zuen. 2012ko salmentak aurreko urtekoen % 106ra igo zituen eta emaitzak, berriz, 2011n lortutako % 77ra, hazteko egindako ahaleginaren ondorioz.

Itxi den urteak zera ekarri du: 2012. urte osorako EITB Taldeko langileentzako ingelesezko prestakuntza proiektua arrakastaz burutzea eta bezeroa gogobetetzea; ingelesezko prestakuntza emateko kontratu berriaren esleipena, mundu mailako hornitzaile moduan, IBMrentzat, 2015era arte ziurtatua; eta 2011ren amaieran esleitutako kontratuaren exekuzioa, gaztelaniatik eta gaztelaniara Europako Parlamentuaren 23 hizkuntza ofizialak itzultzeko.

Azkenik, **GSRk** kooperatiba Egoitza Zerbitzuen sektorean finkatzen jarraitu du. Enpresak 10 urte beteko ditu 2013an, eta ibilbide arrakastatsua izan du, eta gestio eredu jakin bat ezarri du desegituratuta zegoen sektore batean. Merkatuan eta gizartearen zegoen behar bati erantzun dio, gure ingurunean lanpostu kooperatiboak sortuz: 400 baino gehiago 2012aren amaieran. Bere egoitzak Euskadin eta Errioxan daude zentratuta, eta proiektu garrantzitsuen artean nabarmen daitezke Victoria

Enea adinduentzako egoitza Donostian, eta EAeko telelaguntza zerbitzuaren esleipena (27.000 erabiltzaile) Teledarekin Aldi Baterako Enpresa Elkartarekin batera. Horrekin guztiarekin, 2011rekin alderatuta, salmentak % 110era igo ziren, eta emaitzak % 101era.

**MCCGRAPHICS**eko negozioen bat egitea urratsa da “offset” industri jarduera eraldatzeko norabide estrategikoan, ekoizpen grafikoa bere bertsio guztietan integratuko duen enpresa bat sortzeko (offset, digitala, web...), multikanal marketin zerbitzuak eskaintzeaz gain.

Eraldaketa horren beharraren eta nahiaren adierazlerik onena da “offset ez diren” negozioei gehitutako balioaren zifrarako planteatutako helburua, negozio osoaren % 25 baita.

**BANAKETA**  
Arloa



Eroskik prezioak murriztearen eta zentro komertzialen kontzeptu berriak birdefinitzearen alde egiten du.



Honako hauek osatzen dute Arloa: jarduera nagusitzat txikizkako merkataritza duen **Eroski Taldea**, **Eroski, S. Coop.** enpresa sozietate nagusitzat duena, eta **Erkop**, nekazaritzako elikagaien sektoreko bost kooperatibaz osatutako bigarren mailako kooperatiba, bere sozietate partaidetuekin batera.

Egoera ekonomikoak eta kontsumo ohituretan izan duen eragin izugarriak Eroskiko ekitaldia markatu du berriro ere; kontsumitzaileengandik gertu egoten oinarritu du egitekoa, bizitza errazteko eta aurrezten laguntzeko, kontsumoaren eta balio erantsi txikiagoko produktuen erosketa murrizteko joera arindu nahian.

Hori dela eta, ahalegin nagusiak bezeroei balio proposamena optimizatzen bideratu dira, produktuen prezioak hobetuta eta sustapen berriak eskainita, aurrezten laguntzeko. Hori horrela, **Eroskiren** 2012ko apustu nagusietako **prezioen murrizketa** izan da. Horretarako, mota guztietako produktuetan eskaintzak eta sustapenak egitera bideratuta, 107 milioi euro inguru inbertitu ditu.

Kontsumitzaileen osasunaren zaintza eta ongizatea denez Eroskiko beste ardatz nagusietako bat, joan den ekitaldian **produktu osasungarriagoen** proposamenean sakontzen jarraitu zuen. 2012an Eroskik VII. Gamaren lehendabiziko prototipoen garapena amaitu du



(prestatutako janari goxo, osasungarri eta tradizionala, baina aldi berean prestatzeko erraz eta azkarra, dibertigarria eta kontsumitzaileekiko interakzioa ahalbidetzen duena), eta Eroskiko langileek oso harrera ona egin diote, 10etik 8ko nota emanaz. Horren ondorioz, 10 dendatan proba pilotu bat planteatu da 2013ko bigarren seihilekorako.

Inbertsio garbiak 9,5 milioi euro izan ziren, batik bat dendak berritzera eta formatu berriak gauzatzera eta sistema logistikoak hobetzera zuzenduta. Inbertsio gordinak 77 milioi izan ziren.

**Berrikuntzak** etengabea izaten jarraitzen du Eroskin, eta presente dago jarduera guztietan, banaketa plataformetatik hasi eta dendetaraino, produktuetatik eta lantaldeetatik igarota. 2012an azpimarratzekoak dira Zaragozako eta Elorrioko Plataforma Logistikoen automatizazioan egindako aurrerapenak, eta arlo komertzialean, 2011n Zarautzen (Gipuzkoa) abiarazi zen Hipermerkatu eredu berriaren jarraipen gisa, 2012an Supermerkatu eredu berriaren garapen kontzeptualaren urtea izan da, zeinak 2013aren hasieran ikusi duen argia Iruñean (Nafarroa).



**Ingurumen garapenaren** esparruan, 2012ko abenduan Oñatin (Gipuzkoa) inauguratu zen Zero Igorpen dendak 2008. urtean hasitako lanaren burutzapena ekarri du. Berrikuntza garrantzitsua da Eroskirentzat, baina baita sektorearentzat ere, lehendabiziko aldiz kontsumo elektrikoa % 60 murrizteko aukera ematen duen denda bat sortu baita. Eroskik denda ekoeraginkorrakoak sortzeko duen interesaren beste alderdi bat da Eroskik urtean elektrizitatean jasotzen duen faktura 100 milioi eurotik gorakoa dela, eta horietatik % 90 denden sarearen kontsumo elektrikotik dator.

Oñatiko denda mugari garrantzitsua da amaierako helburua lortzeko, hau da, sareko elektrizitatea kontsumituko ez duen denda beregain bat lortzeko. Hori dagoeneko etxebizitzaren eraikuntza zibilean badago, ez hala txikizkako eraikuntza komertzialean, supermerkatu batek behar duen hotz kantitatea sortzeko konplexutasun handia dakarrelako. Proposamenaren muina da Oñatiko dendan testatu diren ekoeraginkortasun neurriak eta Trisorkuntzako teknologia berrien ezarpena uzartzea; horri esker, biomasaren errekuntzaren beroaren bitartez, hotza eta elektrizitatea lor daitezke. Proiektua 2016ko amaierara arte luzatuko da eta, hori errealitate egiteko, Eroski Partzuergo bat gidatzen ari da; bertan integratu dira CENER (Iruñeko Zentro Teknologikoa) eta trisorkuntzan espezialistak diren hiru enpresa (Apina, Rank eta Girasolar), eta gainera Europar Batasunaren zuzeneko babesa ere badu, LIFE+ programaren bitartez.

Komunitateari emandako laguntzaren barruan, eskualdeetako ekonomiari emandako laguntza nabarmendu da. 2012an, Eroskik **tokiko produktuaren alde** lanean jarraitu du. Horretarako, lankidetzak areagotu dira administrazioekin, kofradiekin, jatorriko izendapenekin eta beste erakunde batzuekin. Tokiko produktuak bultzatzeko ekitaldiak ere antolatu dira eta eskualde mailako topaketak egin dira. Horietan,



bateko eta besteko sektoreen egoera aztertu da, Eroski tokiko produktuak kudeatzeko duen politika landu da, eta bi aldeentzat aukerak sortzeko moduak aztertu dira.

Oro har, Banaketa Arloak guztira 7.092 milioi euroko **salmenta** gordinak izan ditu 2012an, hau da, % 11, 8ko murrizketa izan du aurreko ekitaldiarekiko, gehienbat

Frantziako merkataritza zentroyen salmentagatik. Azalera egonkorrari dagokionez, Elikadurako salmentak % 2,5eko jaitsiera moderatua izan du (sektoreko onenetakoa), eta oro har merkaturan Elikadura Ez diren arloen ahultasuna nabarmentzen da. Urtean zehar **enplegua** batez beste 39.839 postukoa izan da, zehaztu beharra badago ere lanaldi partzialen eta osoen arteko aldearen




ondorioz guztizko enplegua askoz ere handiagoa dela, 46.000 lagun ingurukoa. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, lanpostuetan izan den murrizketa Frantziako merkataritza guneen salmentaren eta baita Espainiako merkatuaren jardueraren jaitsieraren ondorio izan da.

**Errentagarritasunari** dagokionez, Eroski Taldeak eta Erkop elkarteak

osutzen duten kooperatibek osatzen duten Banaketa Arloaren Ebitda errepikaria 271 milioi euroan kokatu zen, hau da, salmenta garbien % 4,2, eta horrek bere jarduera komertzialaren sendotasuna erakusten du.

Ekitaldiko beste elementu aipagarri batzuen artean azpimarra daiteke jarduera guztien emaitzek eta *cash flow*ak egindako aurreikuspenak

gainditu dituztela; gainera, desagertu zen Multifoodeko lan bazkide guztiak behin betiko birkokatu ahal izan dira, eta **Unekel** kooperatibaren berrantolamendu sozietarioa arrakastaz burutu da.





## **M4FUTURE BERRIKUNTZA EREDU KORPORATIBOA**

2012an zehar, **Zientzia eta Teknologia Plan korporatiboaren** esparruan, **M4FUTURE** izeneko Berrikuntza Eredu Korporatiboaren definizioa eta garapena landu da. Hori diseinatzeko **IK4-Ideko, IK4-Ikerlan, Isea, LKS, MGEP** eta **MIK**en lankidetzak izan dira.

Horrenbestez, **MONDRAGON**ek mekanismo bat bereganatu du, I+G+b arloan ahalegin korporatiboak bateratzeko gai izango dena, garapen, ezagutza eta jarduerak berriak

bultzatzeko (ezagutzaren triangelua) eta, halaber, Korporazioarentzat estrategikoak izango diren sektore berrietan enplegua sortzeko.

Eredu berria, hasieran, Korporazio osoarentzat estrategikoak diren lau eremutan ezarriko da:

- **Dibisioen arteko** proiektuak martxan jartzea.
- Proiektu **integralak** abiaraztea.
- **Osasunaren** sektorean balioa izango duten jarduerak korporatiboak garatzea.

· **Energia-Iraunkortasun** sektorean balioa izango duten jarduerak korporatiboak garatzea.

Hori guztia Berrikuntza-Sustapen-Ezagutzako sistema korporatibo integratu batean oinarrituta, non aktore nagusiak kooperatibak, ikerketaren eragileak, unibertsitatea, ordezkariak korporatiboak, parke teknologikoak, Zentro Korporatiboa eta Sustapen Zentroa izango diren.

M4FUTURE MONDRAGONek I+G+b-an egiten dituen ahaleginak bateratzeko gai den berrikuntza eredu bat da.



## I+G+b ZIFRAK

### Negozia

Industria Arloko Kooperatibak	+80
Postu ertaintetako langileak (postuak batez beste)	36.963
Fakturazioa	5.812 milioi euro
Guztirako gastuak I+Gan	160 milioi euro
Guztirako gastuen % I+Gan salmenta guztiekiko	% 2,76
Guztirako gastuen % I+Gan Balio Erantsiarekiko	% 9,02
Indarrean dauden patente familiak guztira urtearen bukaeran	564
Duela 5 urte existitzen ez ziren produktu/zerbitzu berrien %	% 19

### Goi Mailako Heziketa (2011-2012 ikasturtea)

Fakultateak (Goi Eskola Politeknikoa, Enpresa Zientziak, Humanitateak eta Hezkuntza Zientziak, Sukaldaritza Zientziak)	4
Graduak	12
Unibertsitateko masterrak	10
Geure titulazioak	17
Matrikulatutako ikasleak	3.674

### Ikerketa eta teknologia

Zentro teknologikoak	3
I+Gko enpresa unitateak	12
"Full time" ikertzaileak	2.096

### Beste batzuk

MONDRAGONeko Zientzia eta Teknologia Plana: 5 jarduera lerro estrategiko

Europako 91 proiektu aurkeztuta

Nazioarteko foro nagusietako presentzia

SIE - Informazio Estrategikoko Zerbitzua: 461 erabiltzaile eta 1.400 albiste baino gehiago

ELKARBIDE Sare soziala lankidetzara bidezko ekintzaitzarako: 270 erabiltzaile

BAC - Business Acceleration Center. Dibisioen ekintzaitzarako zentroa



## ZENTRO TEKNOLOGIKOAK ETA ENPRESEN I+G UNITATEAK

**Aotek**, Automatizazioan eta optikan diharduelarik, bere helburua Fagor Automazionek garatu eta fabrikatutako produktuetan integratuta dauden teknologien bikaintasuna lortzea da: kontrol numerikoak, erregulagailuak, motorrak eta kokapena bistaratzeko eta atzitzeko sistemak.

2012an, Aotek lankidetzan aritu zen hainbat ikerketa proiektutan, besteak beste: **Power-OM**, Europako FP7ko proiektuaren barruan, optimizazioa lortzeko, makina-erreminten energiaren kontsumoan, fidagarritasunean, operazioetan eta mantentze lanean oinarrituta; **IMPELER**, CDTI proiektua, makina-erreminta handien funtzionalitateak areagotzeko; **FORE**, INNPACTO programaren barruan, substratu metalikoen gainean sareko patroien grabazioa eta irakurketa lortu nahi duena; **PROFUTURE**, **PROFUTURE II** eta **INPRORET** proiektuak, ETORTEK programaren barruan, eta CIC MARGUNErekin lankidetzan, mekanizazio prozesu berriak ikertzeko, zehatzagoak, azkarragoak, eta energetikoki eraginkorragoak, eta makina-erreminta ez konbentzionalak garatzeko, eramangarriak, zehatzagoak eta mekanizatu beharreko piezetara egokitzen direnak; **ECOFAB** eta **IMAGHINE** proiektuak, makina-erreminten energiaren kontsumo arrazionala lortzeko eta horietan modulu adimendunak gehitzeko, biak ala biak ETORGAI programaren barruan, eta "Fidagarritasun eta eskalagarritasun handiko sistema txertatu modularrak, hardware plataformen eta sistema eragileen mendekotasuna deuseztatzeko" izeneko proiektua, SAIOTEK programaren barruan.

**CS Centro Stirling** Osagaien Dibisioko enpresen zerbitzura dagoen I+G+b-ko enpresa unitatea da. Osagai eta sistemen prototipoen diseinu, kalkulu, simulazio eta fabrikazioan espezializatuta dago, etxean energiaren erabilera arrazional



eta iraunkorra lortzeko. Osagai aurreratuak, mikrosorkuntza eta kriogenia eta industri hotza lantzeko jorratzen dituen jarduera ildoetan erabiltzen dituen teknologiei esker, bere enpresa tradizionalen produktuak garatu eta optimiza ditzake, gailu berriak garatzeaz gain.

2012ko jardueratik hiru ekintza azpimarra daitezke, maila lokalean, autonomikoan eta internazionalan garatzen dituen ekimenen erakusle.

Maila lokalean, **CSk BAC** bat koordinatzen du, **Fagor Elektronika**, **Kide** eta **Fagor Ederlanekin** batera, harreman eredu bat landu nahi duena, teknologia termoelektrikoaren eta

hortik eratorritako produktuekin jarduera berri bat sortzeko xedarekin. Teknologia horrek enpresa horien produktuen katalogoa osatzea ahalbidetuko du eta, aldi berean, eduki teknologiko handiko sektore berrietan sartzea.

Maila autonomikoan, **CS**, **Orkli** eta Osagaien Dibisioarekin batera, Etorgai proiektu bat gidatzen ari da, biomasa erabiltzeko produktuak garatu nahi dituena. Berogailuak, galdarak eta etxera energia garbia ekarriko duten mikrosorkuntzako sistemak. **Giroa** eta **Tifell** berogailu, galdara eta instalazioen zatiaz arduratzen dira, **Tekniker-IK4** eta **Ikerlan-IK4k** helburuak betetzeko behar den ezagutza lantzen dute.





Nazioarteari dagokionez, berriz, hainbat jarduera garatu ditu, eta horien artean azpimarra daitezke Dubrovniken egindako ISEC nazioarteko biltzarrean izandako partaidetza nabarmena, eta baita ere Effiheat proiektuaren lidergoa; azken horretan bero ponpa egin da, stirling teknologia oso berritzaile batekin, geotermiarekin erabiltzeko, bero ponpa tradizionalen eraginkortasuna gainditzeko xedearekin.

Negozio zifra 2011n baino % 40 handiagoa izanik, CSk bere enpresentzat produktuak eta teknologiak garatzeko egiten duen lana I+Gra bideratzen dituen baliabide propioen arloan finkatzen ari da.

**Edertek**, automoziorako osagaiak egin eta muntatzeari lotutako fabrikazio teknologietan espezializatuta dagoen zentro teknologiko bat da, eta bere helburu nagusia **Fagor Ederlan Taldearen** eta bere bazkide erabiltzaileen berrikuntza teknologikoko beharrei erantzutea da.

Ekitaldi honetan 2009-2012 Plan Teknologikoaren amaiera iritsi da, eta horren baitan aurrerapen handia egin da Ederteken prestakuntzari dagokionez, erantzun berritzaile eta lehiakorra emateko helburuarekin, osagaiak diseinatzen eta balioztatzen, material eta prozesu berriak garatzeko eta industri modelo berriak sortzeko.

Urtean zehar, antolamenduaren arloan bi hobekuntza leho garrantzitsu abiarazi dira: alde batetik, Zaintza Teknologikoaren sistema berrikusi da, eta baliabide gehiago eman eta bereziki proiektu teknologikoetara bideratu da; beste aldetik, Lankidetzaren Plan bat garatu da, bere beharren ildo nagusiak eta eragileen I+Gko jarduerak kontrastatzeko helburuarekin, lankidetzaren horietan eraginkortasun handiagoa lortzeko.

Halaber azpimarratu behar da Industrializazio Birtualaren esparruan jarduera garrantzitsua garatu dela, planta operatiboen berrorientazioaren ondorioz, Lean fabrikazio ereduak barneratzeko eta bikaintasun operazionalaren estrategia lantzeko.

**ETIC**. Bere 4 urteko bizitzan lortutako *expertise*, ezagutza eta gaitasunak frogatzeko behar besteko proiektuak garatu dira. ETICek azken urteotan egindako garapenen eta espezializazio proiektuen emaitzak erakusteko, *showroom* bat prestatu da, hainbat erakusgailurekin. Demoek ETICeko ikertzaileek egindako teknologia ugarien potentzialtasuna, garapenerako ahalmena eta lortu duten *know-how*-a erakusten dute. Ezagutza horren barruan sartzen dira urruneko nodoetatik kudeatzen diren sareko sistema adimendun monitorizatuen garapena, edota

keinu, *multi-touch* eta ahots bidezko interakzio naturaleko sistema sofistikuak.

ETICek 2012ko maiatzean inauguratu zuen *showroom*-a, eta bertan hainbat gune daude, demoen aplikazio eremuaren arabera, ingurune hauek lantzen dituztenak:

- Etxea: osasuna monitorizatzeko aplikazioak, domotika, TB interaktiboa eta dieta eta elikagaien kudeaketa.
- Smart Cities: argiteria adimendunen demoak, ibilgailu konektatua eta mugikortasun eta mendizaletasunerako aplikazioak.
- Txarteldegi Digitala: turismo, jatetxe, hotel, merkataritza gune eta leku publikoetarako aplikazioak.

Erakustareto horren lema "The New Everyday" da, bertan dagoen etorkizuna dela azpimarratzeko, eta ingurune gero eta adimentsuago eta interaktibo batean elkarrekin eragiteko modu berriak erakusteko.

Teknologia eta joera berrien bilakaeraren arabera, ETICek bere ezagutza, expertisea, garapenak eta soluzioak eremu teknologiko hauek bideratzen ditu: Sistema Adimendunak, Mugikortasuna, Cloud Computing, Internet of Things, Tablet Smartphonetarako Aplikazioen garapena eta Smart Cities.

2012. urtean zehar, ETICek bere garapenak Smart Cities arlora zuzentzera erabaki du. Horrez gain, izena ETIC-Innovation Center izatea erabaki du.

**Fagor Hometek** Fagor Etxetresna Elektrikoen Taldeko I+G+b unitate enpresariala da. 2005ean sortu zen, berrikuntza unitate gisa, unitate estrategiko espainiarri lotutako berrikuntza unitate gisa, eta aldi berean, matrizea europar taldera eraldatzeko prozesuari lotuta. Horrenbestez, Fagor Hometek izaera internazionalerako unitate bihurtu zen. Bere egoitza nagusia Arrasaten dago (Gipuzkoa), eta pertsonak eta

instalazioak taldearen bateko eta besteko kokapenetan daude (Arrasate; Lyon, Orleans eta La Roche sur Yon, Frantzia; eta Wroclaw, Polonian).

Bere jardueren artean honako hauek nabarmentzen dira: Fagor Etxetresna Elektrikoen Taldearen Berrikuntza Plana kudeatzea eta dinamizatzea; interes estrategikoko arloetan ikerketa sustatzea eta aktibatzea; Taldearen berrikuntza proiektuen kudeaketa koordinatzea eta aholkularitza ematea (Taldearen Project Management Office moduan), eta Taldearen berrikuntza sarea koordinatzea.

Estatuko, Europako eta erkidegoetako I+G+b laguntza programek abalatu eta babestu dituzten proiektu garrantzitsuen artean hauek nabarmen daitezke:

- **CHS (ETORGAI)**: etxeko baliabide energetikoen azterketa, analisia eta kudeaketa eraginkor eta iraunkorra.
- **HOUSGAI (ETORGAI)**: pertsona adinduei etxean osasun laguntza emateko zerbitzuen ikerketa.
- **REFLASH (GAITEK)**: etxetresna elektrikoak urrutitik programatu ahal izateko interfazeen garapena.
- **FOCUS (INNPACTO)**: airearen tratamendurako kontzeptu berrien ikerketa eta garapena.
- **PRICE (INNPACTO)**: hirietan energiaren kudeaketa adimenduna ikertzeko proiektua.

**IK4-Ideko** industri fabrikazioko eta ekoizpeneko teknologietan espezializatuta dagoen zentro teknologikoa da, eta 2012. urtean 8,7 milioi euroko zifra lortu zuen sarreretan. Horietatik 5,4 milioi eskaripeko proiektuetatik etorri dira, eta 3,3 milioi hainbat administrazio publikorentzat egindako ikerketa proiektuetatik. 2012an SCI aldizkarietan (Science Citation Index) 11 argitalpen erregistratu zituen, europar patente bat onartzea lortu zen eta beste bi patente eskatu ziren. I+G planak garatzeko, IK4-Idekok beti

eta etengabe lankidetzaren egonkorren formularen alde egin du eta, esparru horren barruan, 2012. urtean ere lankidetzaren horiek mantendu egin dira, COMODE bere lankidetzaren ereduaren bitartez, hiru bezero estrategikorekin. Hainbat garapen teknologiko egiteko bere lehenengo plana osatu du, eta horrela eragin handiko proiektuetarako I+G+b zikloa errematatu du, EXPLOIT bere lan metodoaren arabera.

Nazioartean Fabrikazio Teknologietan duen kokapen ona CIRPen (International Academy for Production Engineering) eta EUSPENen (European Society for Precision Engineering and Nanotechnology) duen presentziarekin bermatzen da, eta aktibo dauden 10 europar proiekturen bidez, horietatik 5etan liderra izanik.

Elgoibarren dago, langile taldean 109 pertsonak parte hartzen dute, horietatik 23 doktoreak eta 7 doktoregaiak, eta bere jardura bi eraikinetan banatzen du. "Fabrikazioko

teknologietan" espezializatuta egonik, bere jardura ikerketa proiektutan zein industriaren eskaripean gauzatzen da, bere 8 ikerketa ildoetan jasotako gaien inguruan: Berrikuntza estrategikoa, Ekoizpenaren kudeaketa, Diseinu mekanikoa, Software adimenduna, Fabrikazio prozesuak, Dinamika eta kontrola, Ikuskaritza eta neurketa, eta Mikroteknologia eta ultradoitasuna. IK4-Ideko IK4 aliantza teknologikoko kidea da.

**Ikerlan-**IK4**** Korporazioaren erreferente historikoa da ikerketaren alorrean. 2012an 20,6 milioi euroko diru sarrerak lortu zituen; horietatik 6 milioi ikerketa eta estrategia proiektu propioei zegozkien eta proiektuok Eusko Jaurlaritzak, Estatuko Administrazio Orokorrek, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Europar Batasunak finantzatu zituzten; 13,2 milioi, berriz, I+G proiektuei zegozkien, enpresekiko kontratupean.



Europako eremuan, IK4-Ikerlanek VII. Esparru Programan 9 milioi euroko finantzaketa metatua lortu du.

Bere ikerketa propiorako **Lankidetzaren Sare Globalari** dagokionez, aipatu behar da aurreko urteetan ezarritako lankidetzari (EPFL, IMEC, ISEA, Valentziako Unibertsitate Politeknikoko CGIP, TU-Viena, Edinburgoko Unibertsitatea, Lovainako KU, Oviedoko Unibertsitatea, Kantabriako Unibertsitatea, Bensañoneko Unibertsitatea, Kataluniako Unibertsitate Politeknikoko Codolab Taldea eta Gironako Unibertsitateko Amade Taldea) aurten lortutako hitzarmen berriak gehitu zaizkiela, Parisko École Centrale, Siegeneko Unibertsitate, Patrasoko Unibertsitate eta Kataluniako IRECEkin izenpetuta. Horrez gain, EERAKO (European Energy Research Alliance) bi Joint Programmingetan parte hartzea lortu du: JP Wind eta JP, Energy Storage Systemen.

IK4-Ikerlanek lau patentetarako eskariak tramitatu ditu, Mikrosistemen eta Mekanikaren jarduerari lotuta.

Arrasate-Olandixo, Arrasate-Garaia eta Miñaoko (Araba) egoitzetan 266 profesionaleko talde bat dauka.

**IK4-Lortek** lotura eta konexio teknologietan espezializatutako zentro teknologikoa da. Bere hamargarren urteurrenaren urtean 3,5 milioi euroko fakturazioa lortu zuen, horietatik % 75 enprekin I+G jardueretarako egindako kontratuen bitartez, eta % 25 ikerketa propioko proiektuen bidez, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Estatuko Administrazio Orokorrek eta Europar Batasunak finantzatuta.

Nabarmendu behar da 2012ko uztailaren 16an zentroaren egoitza berria inauguratu zuela, Goierri Berrikuntza Gunean, Ordizian (Gipuzkoa).

IK4-Lortek, 2012aren itxieran, 46 pertsona zituen, horietatik 8 doktoreak. 16 argitalpen egin ziren, horietatik 4 ISI arlokoak, eta PCT patente bat eskatu da.

Urtean zehar I+Gko 35 proiektu garatu dira, horietatik 23 enpresarako transferentziakoak eta 12 ikerketakoak: besteak beste, nabarmentzekoak dira VII. Esparru Programako europar proiektuak, hala nola "WELDMINT", IK4-Lorteken gidaritzapean, shearografia, termografia aktibo eta ultrasoinu aurreratuen bidez kontrol ez suntsitzailera zuzenduta, edota "MERLIN", aeronautikoaren arloan gehikuntzako fabrikazio teknologietara zuzenduta.

**Isea** Garapen Teknologiko, Berrikuntza eta Ekintzailetzarako Zentroa da, MONDRAGON Korporazioko Ingeniaritza eta Enpresa zerbitzuen Dibisioak sustatzen duena. Bere eginkizuna Zerbitzuen Sektorearen lehiakortasuna hobetzea da, enpresa jarduera





berrietan Garapen Teknologikoa, Berrikuntza eta Ekintzailatza bultzatuz.

Modu osagarrian, ISEAk MONDRAGONeko *Business Acceleration Center* (BAC) dinamizatzen du: egitura espezializatu hau enpresa ekimenak abiarazteko prozesuak dinamizatzerazuzenduta dago, lankidetzaz bidez sortutako negozio berrien sustapenaren bitartez.

MONDRAGONeko BAC dinamizatze lanari dagokionez, 2012ko ekitaldian zehar ISEAk honako jarduera hauek egin zituen:

- Esplorazioaren eremuan, 8 DREAMWORKS saio, lankidetzan oinarrituta, negozio berrietarako aukerako espazioen prospektiba lantzeko.
- Giza kapital ekintzailea sustatzeko arloan, SAIOKA saioetan parte hartzeko metodologiaren diseinua eta euskarrietarako materialak egin ditu. Halaber, 2 SAIOKA edizio egin ziren, eta guztira 41 pertsonak parte hartu zuten.
- Azkenik, 9 negozio plan egiteko euskarria eman zuen, MONDRAGONeko BACen Enpresa Proiektuen 1. Belaunaldiaren esparruan.

2012ko ekitaldian Iseak MONDRAGON OPEN INNOVATION antolatu zuen, hau da, MONDRAGONeko Business Acceleration Centerrek (BAC) sustatutako "Berrikuntza Irekiko" ekimena, Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailarekin lankidetzan.

**Koniker** teknologia berrien ikerketan eta garapenean espezializatutako zentro teknologikoa da, konformazio eta mihiztadura prozesuei lotuta. 2012an jauzi kuantitatibo garrantzitsua eman da, bereziki hainbat kooperatiba kideren dibertsifikazio proiektuetan oinarrituta. Gainera, hainbat zerbitzu finkatu egin dira, horien artean Zaintza Teknologikoa eta Adimen Lehiakorra, baita Makinen Segurtasunari buruzko Aholkularitza ere. Kalkulu eta Simulazio ekipoa ere indartu egin da.


Administrazio publikoetatik datozen itzulkienei dagokienez, lortutako zifra nabarmen handitu da, Etorgai proiektu berriak martxan jarri direlako eta, batik bat, Europako proiektuetan sartu direlako, bertan 4 proiektu berri baitaude, 2011n lortutako lehenengo hirurei gehitu beharrekoak.

**Leartikerek**, 15 urteko ibilbidearen ondoren, bere markaren irudi berria aurkeztu du. Halaber, webgunea ere berritu du ([www.leartiker.com](http://www.leartiker.com)), bere azken proiektu eta aurrerapenei buruzko informazio eguneratua emateko: hitz nagusiak dira berrikuntza-hurbiltasuna-etorkizuna.

Oso kualifikazio altuko hogeita hamar profesionalak baino gehiagok lan egiten dute gaur egun Leartikerren, eta horien jarduera da polimeroen eta elikaduraren teknologien ikerketa, garapena eta berrikuntza. Leartikerrek produktu berriak garatzeko ziklo osoan zehar laguntzen die enpresei, merkatu berrietan modu lehiakorrean kokatzeko. 2012an 60 berrikuntza proiektu gauzatu ditu enpresekin. Azpimarratzekoa da BIOSOURCE-COMP europar proiektua: bertan, zuntz natural bati material biopolimerikoak gehituz automotzioko egiturazko piezetan erabil daitekeen material bat lortu nahi da. Horrez gain, Leartiker nekearen inguruko proiektu batean parte hartzen ari da, WILL MARS doktore eta aditu amerikarrarekin.

Halaber, Leartikerrek sektore sanitarioaren aldeko apustu argia egin du bere plan estrategiko berrian, eta helburu moduan jarri du jarduera hori 2016an ikerketa lanaren % 20 izatea. Sektore biomedikoaren aldeko apustu horrek Leartikerren negozio aukera berriak bilatzeko politikari erantzuten dio. Gaur egun gailu medikoak garatzeko material polimerikoaren sorkuntzan murgilduta daude, eta gehigarri gabeko produktu osasungarriak garatzeko lankidetzak dituzte (Healthy Food).

2012an Leartikerrek "Gosari teknologikoa" abiarazi ditu, gaikako ekitaldiak antolatuzko,




arlu teknologiko interesgarrietan erreferentziazkoak diren pertsonen esperientzian oinarrituta. Horien artean hainbat gaitako adituak daude, esaterako, bioplastikoen diseinukoak, nekearen karakterizaziokoak edo analisi dinamikokoak.

**Maier Technology Centre (MTC)**, Teknologiararen Euskal Sarean barruan egonik, pieza eta multzo termoplastikoen ikerketan eta garapenean espezializatuta dagoen zentroa da, batez ere automotzioaren sektorerako. Bere jardueran sartzen dira injekzioarako tresneriaren ikerketa, diseinu prozesuak, simulazioa, estiloa eta garapena, eta bere lan arloan aplikatu daitezkeen teknologia berrien ikerketa, bereziki dekorazioari erreparatuta.

2012an bezeroengan eta merkatuan lortutako arrakasta mantendu egin da, azken urteetan egindako ikerketa eta garapenaren ondorioz sortutako berrikuntza proposamenari esker. Gainera, 2012. urtea 2. Plan Teknologikoko azken urteari lotutako





proiektuen garapenarekin osatu da, eta ikerketa aurreindustrialeko instalazio berriak ere behin betiko abiarazi dira (pintura eta kromatua), 2011ko ekitaldian zentroa handitu eta gero. Halaber, Taldearentzat hausnarketarako urtea ere izan da, eta 2020rako joeren azterketa hasi da, Maier Taldearen hirugarren Plan Teknologikoaren giltzarriak kokatzeko.

Zentroaren gakoetako bat, berriro ere, “bezeroagana oso orientatuta dagoen estetika bat hornitzeko” eginkizunean sakontzea da.

Azkenik, nabarmen daiteke 2012an UNE 166002 erreferentziaren arabera I+G+b proiektuak garatu direla, eta sistemaren lau urtean behingo ikuskapena inolako akatsik gabe gainditu dela.

**Mondragon Innovation & Knowledge (MIK)** I+G+b-ko zentro bat da, enpresa eta gizarte berrikuntzaren kudeaketan espezializatua. 2001ean sortu zen, enpresen lehiakortasunean eta garapenean laguntzeko, eta bere

jarduera eremuak lau ikerketa eta transferentzi lerro ditu: Enpresa Irekia, Ekintzailtza, Nazioartekotzea eta Enpresa Eredu Sozialki Arduratsuak.

MIKek Gipuzkoako Oñati eta Irun herrietan ditu egoitzak, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko kidea da.

2012. urtean ekintzailtza sustatzeko lan handia egin du, Euskal Autonomia Erkidegoko eskualde ugarian. Halaber, aitzindaria izan da berrikuntza irekita zuzendutako tresnen eta metodologiaren garapenean. Horrez gain, bere jardueran nabarmen daitezke mugaz gaidiko proiektuetan egindako ekintzak, Bidasoaren inguruko enpresen artean sinergiak bilatuz. Azkenik, MONDRAGON Korporazioaren laguntzarekin, hainbat landa azterketa garrantzitsu jarri dira martxan atzerriatuen kudeaketaren arloan eta gure mugetatik harantzagoko industrialdeen kudeaketaren arloan.

**Orona eic** (Orona Elevator Innovation Center). 2010ean egindako hausnarketa estrategikoak Orona eic-k hurrengo

4 urteetarako zuen apustua indartu zuen, epe luzera ikerketan egindako ahalegina % 57 handitzeko bermearekin.

2012ko mugari nagusietakoa ORONA IDE0-innovation city berrikuntzaren hiriarren obren aurrerapena izan da; lehenengo fasea 2014an inauguratuko da, eta hiru eraikinak dagoeneko eraikita daude. Eraikinak hauek dira:

- Orona Zero eraikina, egoitza korporatiboa eta Orona eic bera hartuko dituen.
- Orona Foundation eraikina, Mondragon Unibertsitatearen kokalekua izango dena.
- A3 eraikina, IK4-Ikerlan hartuko duena.

Gainera, berrikuntzaren hiri hori ORONAren berrikuntza sarearen parte diren beste zentro eta unibertsitate batzuei irekitako gunea izango da.

Espazio horretako funtsezko gaitako bat energia izango da, eta proiektu enblematikoenetakoa “G3A Research”:



energia metatzeaz gain, eraikinaren kudeaketa energetikoa landuko da, eta gai horrek espazio berezia izango du A3 eraikinean, gune partekatu batean teknologia berri horiek landu ahal izateko, azpiegiturarik modernoekin hornituta. Energia metatzeko eta kudeatzeko sistemak ikertzeko ildo hori lehenagotik zeuden ildo tradizionaleri gehitzen zaie: tribologia, bibroakustika, kontzeptu berriak, makina eta bihurgailuen diseinua, elektronika eta komunikazioak, mantentze lanen bikaintasunera zuzendutako M2M sistemekin batera.


**ULMA Packaging Technological Center (UPTC)** packagingaren sektorerako teknologiaren ikerketan eta garapenean espezializatutako zentroa

da, eta 2009. urtean definitutako planean estrategikotzat hartu ziren arlo teknologikoak bultzatzera zuzendu ditu bere ahaleginak, hainbat lankidetzaren proiektutan parte hartzea lortzeaz gain.

2012an, zentroaren jarduerak sistema txertatueta oinarritutako teknologien erabileran aurrerapen handiak egin ahal izatea ekarri du, prozesuak automatizatzen zuzenduta, eta kontrol plataformak jabe bat ere garatu du, Packagingaren sektorerara begira. Horrez gain, hainbat tresna garatu dira hainbat ekipamendutan konektibitate funtzioak integratu ahal izateko, enbasatzeko ekipamenduen zein manipulazio sistema robotizatuen zerbitzua eta mantentze lanak hobetzeko.

## Zentro teknologikoak eta I+G Unitateak

Izena	Aurrekontua (M. euro)	Pertsonak
CS Stirling	1,03	13
Hometek	3,41	41
Isea	1,04	11
Koniker	1,90	35
IK4-Lortek	3,50	46
Maier MTC	8,60	106
Orona eic	2,65	69
ETIC	0,60	10
Edertek	4,30	35
IK4-Ideko	8,70	109
UPTC	3,40	39
IK4-Ikerlan	20,60	266
Aotek	2,60	30
MIK	2,10	20
Leartiker	1,50	30
<b>Guztira</b>	<b>66,03</b>	<b>860</b>







### Garaia Berrikuntza Gunea

2012an GARAIA n instalatutako enpresak finkatu egin dira, baita Gunea bera ere topaleku gisa (Meeting Point), izan ere, bertako instalazioetatik 9.000 pertsona inguru igaro dira bateko eta besteko ekitaldietan. Bere jarduera propioaren barruan, eta Garaia Guneak eskaintzen dituen zerbitzuen jarduera osagarri moduan, hainbat ikastaro, mintegi eta enpresa harremanetarako ekintzak nabarmen daitezke, teknologia eta ezagutzaren transferentziara, enpresa berritzaileak eratzera eta indartzera, berrikuntza finantzatzera eta nazioartekotzera zuzenduta.

### Mondragon Unibertsitatea

2011-12 ikasturtean, Mondragon Unibertsitateak bere titulazio guztiak eskaini ditu, 12 gradu, Europako Goi Hezkuntzaren Esparrura egokituta. Tartean dira Goi Eskola Politeknikoa (Arrasate eta Goierri); Enpresa Zientzien Fakultatea (Oñati eta Bidasoa); Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (Eskoriatza); eta Gastronomia Zientzien Fakultatea – Basque Culinary Center (Donostia).

Ingeniaritzaren arloan diploma bikoitzak ere eskaini dira, guztiak Frantziako unibertsitateekin lankidetzan. Zehazki, unibertsitate

horiek dira Tolosako Enseihit eta Insa, Nantesko ECN eta Grenobleko ENSE3.

Europako Goi Hezkuntzako Esparruak ezarritako sistema unibertsitario berria ezarri zenetik graduondoko aurreko ikasketa eredu aldatu egin zen eta, nobedade nagusi gisa, Unibertsitate Masterra sortu zen, Graduaren eta Doktoretzaren arteko ikasketa maila bat.

Izaera espezializatua duen prestakuntza da, diziplina askoko ikuspegiarekin, eta bere helburua da espezializazio profesionala edo akademikoa lortzea, edo ikerketaren inguruko jarduera profesional bati ekitea. Goi Hezkuntzaren egitura berri horrek lehenagoko diplomatu, lizentziatu edo ingeniarietako Doktoretza (3. zikloa) egitea ahalbidetzen die, Unibertsitate Master baten bitartez.

2011-12 ikasturtean Mondragon Unibertsitateak 10 unibertsitate master eskaini ditu, eta horietatik 6 berriak izan dira.

Horrez gain, Haur Hezkuntzako eta "blended" Lehen Hezkuntzako egokitzapen ikastaroak ezarri dira eta Ingeniaritza Teknikotik gradura egokitzeko ikastaroak diseinatu dira.

Graduondoko ikasketei dagokienez, 2011-12 ikasturtean, lehenago

aipatutako unibertsitate masterrez gain, beste 17 titulu propio ere eskaini dira.

2011-12 ikasturtean Mondragon Unibertsitatean guztira matrikulatuta egon diren ikasleak 3.674 izan dira, eta horietatik 2.892k graduoko unibertsitate ikasketak egin dituzte, eta 782k hirugarren zikloko eta graduondoko ikasketak; azken horietatik 88 ikasle Mondragon Unibertsitateko doktoretza programetakoak dira.

2011-12 ikasturtean 698 ikasleek praktikak egin dituzte enpresetan, eta ikasleek egindako karrera amaierako lanetan 481 proiektu garatu dira. Enpresek karrera amaierako proiektu horien inguruan izan dute gogobetetzea 10etik 8,5 izan duten.

Halaber, 2011-12 ikasturtean zehar titulazio berrien diseinua landu da, eta horiek 2012-13 ikasturtean jarri dira martxan, tartean unibertsitate master hauek egonik: Marketin Digitala eta Sorkuntza eta Turismo Aktiboko Enpresen Kudeaketa.

**Nazioartekotzearen** inguruan, ikasleen zein irakasleen mugikortasunak nabarmen handitzen jarraitzen du. 2011-12 ikasturtean zehar, 367 ikasle atzerriko unibertsitateetara abiatu dira, eta horietatik % 30ek kanpoko unibertsitate edo enpresetan egin dituzte praktikak edo karrera amaierako proiektuak. Halaber, 2011-12 ikasturtean Mondragon Unibertsitateko campusetan 82 ikasle atzerriar aritu dira; aurreko ikasturtean 65 izan ziren gurean izandako ikasle atzerriarrak.

Horrez gain, MÜren nazioartekotzearen testuinguruan, azpimarra daiteke MEI – Mondragon Educacion Internacional sortu izana; erakundea Mondragon Unibertsitateak, Alecopek eta MONDRAGON Korporazioak osatu dute, eta helburu nagusia da MÜren eredu beste herrialde batzuetako goi hezkuntzako erakundeetara zabaltzea. Ekimen horren emaitza gisa, Kolonbiako Unibertsitate Panamerikarrarekin lankidetzara garatu da, bertan MEIk % 20ko partaidetza sozietarioa duelarik. Halaber, 2011-12 ikasturtean zehar lan sakona egin da Mexikon eta Txilen aukerak bilatzeko eta garatzeko.

Mondragon Unibertsitatean garatzen den **I+G** jarduerak ezagutza berria



sortzetik harantzago joan nahi du, izan ere, ematen dituen karreretako prestakuntza eta berrikuntza zerbitzuak helmugako arloan edo eremuan aplikatu ahal izatea nahi du, hau da, hori eskatzen duten erakunde eta enpresetan bertan. Finean, unibertsitatearen iritziz, irakaskuntzaren kalitatea handitzeko eta bere konpromiso soziala betetzeko modurik eraginkorrena bere hiru jarduerak integratzea da, hau da, irakaskuntza, ikerketa eta transferentzia.

Lankidetzaren bidezko ikerketaren eredu horren oinarrian dago ikerketaren arloa eta hiru eragile nagusien lankidetzaren uztartzea: Unibertsitatea, Zentro teknologikoak eta Enpresak. Uztarketa horrek ikerlarien masa kritikoa bat sortzea ahalbidetzen du, beharrezkoa dena ikerketa bikaina garatu nahi bada, eta unibertsitatea eta enpresa gehiago hurbiltzea ere ahalbidetzen du, faktore hori ezinbestekoa izanik berrikuntza bultzatu nahi badugu eta etorkizuneko ikertzaileak prestatu nahi baditugu.

Bereziki enpresaren sektorean nozitzen ari den egoera konplikatu gorabehera, ikerketa kontratuetatik eta ezagutzaren transferentzi proiektuetatik lortu diren sarrerak % 15 baino gehiago handitu dira aurreko ikasturtearekin alderatuta. Merezki du nabarmentzea, adibidez, Goi Eskola Politeknikoaren kasuan, enpresek finantzatzen duten ikerketa horren % 62 lankidetzaren bidez garatzeko epe luzerako ikerketa programa bati lotuta dagoela, eta bertan inskribatzen dela hasitako doktore tesien portzentaje gero eta handiago bat.

Halaber, testuinguru zail batean, ikerketa generikoaren maila mantentzea lortu da, hori ezinbestekoa baita ikerlariak prestatzeko eta enpresen eta erakundearen etorkizuneko beharrei aurrea hartzeko. Ikerketa taldeek behar dituzten baliabideak dauzkatala bermatzeko, hornidura handitu egin da, Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate Planaren ondorioz etorri den finantziarioari esker zein Saiotek Programari esker, baita Gipuzkoako Foru Aldundiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sarearen deialdiari esker ere. Era berean, Eusko Jaurlaritzako ikerketa estrategikoko programetan izandako presentzia ere sendotu egin da joan den ikasturtean zehar, izan ere, Goi Eskola Politeknikoak eta MIK-Enpresa Zientzien Fakultateko

ikerketa zentroak ETORTEK programako 6 proiektutan parte hartu dute, eta Basque Culinary Centerrek ETORGAI proiektu batean parte hartu du.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak ere hainbat proiektu garatu dituela nabarmendu behar da, Europa mailako erreferentziako hainbat unibertsitateekin lankidetzan. Proiektu horietan hainbat gai sakondu dira, hala nola: hizkuntzen didaktika, haur hezkuntzako irakasleen sentsibilitatea, konpetentzien garapena, MacArthur proiektua edo esparru kooperatiboa, azken hori HUHEZITik zein MIKETik garatu delarik.

Horiez guztiez gain, 2011-12 ikasturtean Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen zein MIK-en ikerketa ildoak birdefinitu dira, eta Gastronomia Zientzien Fakultateak bere ikerketa zentroaren ibilbidea abiarazi du, hainbat proiektu martxan jarri.

Amaitzeko, 2011-12 ikasturtean 109 artikulu argitaratu dira argitalpen espezializatuetan, eta 119 txosten ere aurkeztu dira zenbait biltzarretan, espainiar estatuaren mailan zein nazioartean. Gai horri dagokionez, Mondragon Unibertsitateak 51 biltzar eta jardunaldi antolatu ditu hainbat gai lantzeko.

**Ekintzaitzaren** esparruari dagokionez, orain dela 6 urte Mondragon Unibertsitateak plan integral bat abiarazi zuen, MONDRAGON EKITEN, ikasleen eta irakasleen artean ekintzaitza sustatzeko, enpresa proiektuen sustapenaren bidez enplegua sortzeko eta lehiakortasuna hobetzeko helburuarekin.

Halaber, dagoeneko 3 urte bete dira Enpresagintza Fakultateak LEINN-Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza gradu berritzailea martxan jarri zuenetik, eta bertako lehendabiziko promozioa 2012-13 ikasturtean lizentziatuko da.

Horrez gain, Goi Eskola Politeknikoak 2011-12 ikasturtean ekimen berri bat jarri du martxan, TEKIN izenarekin, oinarri teknologikoan bermatuta, merkatuan proiektzioa izan dezaketen ideiak asmatzeko eta garatzeko azpiegitura, aholkularitza, prestakuntza eta laguntza eskaintzeko helburuarekin.

Amaitzeko, 2011-12 ikasturtean zehar, Mondragon Unibertsitateak hainbat **proiektu estrategikori** ekin die, hala nola:

- Basque Culinary Center, instalazioak 2011-12 ikasturtearen hasieran inauguratu dituen, eta Gastronomia eta Sukaldaritzako Arteen Graduaren lehenengo promozioa.

- Enpresa Zientzien campus berria: obrak 2008-09 ikasturtean egiten hasi ziren, Oñatiko Unibertsitate eta Teknologia Hiri berrian, eta 2010-11 ikasturtean jarri zen martxan.

- 2011-12 ikasturtean zehar Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen campus berrirako obrak egiten jarraitu da, Aretxabaletan. Campusa batik bat Fakultatearen ikus-entzunezkoaren arloa garatzera zuzenduko da, eta bere ibilbidea 2012-13 ikasturtean hasiko da.

- Mondragon Unibertsitateak partaidetza aktiboa duen beste proiektu estrategikoetako bat Orona IDE0-innovation city proiektua da, eta bertan, 2013-14 ikasturteetik aurrera, MUko Goi Eskola Politeknikoak campus berri bat irekiko du, Donostialdean. Gaur egun, eraikuntza proiektua garapen fasean dago eta, Goi Eskola Politeknikoari dagokionez, aipatu campus horretan emango diren ingeniarietako titulazio berriak diseinatzeko lanean ari da.

- Azkenik, 2011-12 ikasturteko proiektu estrategikoen artean nabarmen daiteke, Erasmus Mundus Acción 2 Programaren esparruan, EACEA -Education Audiovisual and Culture Executive Agencyk LAMENITEC programa bat hautatu duela, zeina Mondragon Unibertsitateak gidatzen duen, Kolonbiako Unibertsitate Fundazio Panamerikarrarekin batera koordinatuta; programa horren helburua da Latinoamerikako 9 unibertsitateetako eta Europako 6 unibertsitateetako gradu, graduondo, doktoretza eta doktoretza ondorengo ikasleen mugikortasuna ahalbidetzea.

- Gainera, 2011-12 ikasturtean Mondragon Unibertsitateak 2013-16 aldirako hausnarketa estrategikoa egin du, eta bertan datozen urteetan unibertsitatearen orientazioa zehaztuko duten erronkak eta helburu estrategikoak identifikatu dira.

## BESTE HEZKUNTZA ZENTRO BATZUK

### Politeknika Ikastegia Txorierrik

2011-12 ikasturtean 356 ikasle hartu zituen Lanbide Heziketan eta 342 Enplegurako Prestakuntzan; horien artean, bai jarduneko langileak bai langabezia daudenak. Nabarmentzekoa da **Batz S. Coop.** enpresak eta telefoniako operadoreen talde batek bi ikastaro antolatuta eta egin izana kontratatzeko **konpromisoarekin** (Doitzaileak eta Komunikazioetako Merkataritza Teknikaria, hurrenez hurren). Era berean, 5 ikastaro eman ziren beste hainbeste enpresaren neurria, Planoen Interpretazio, Automatismo Programagarri eta Web 2.0 arloetan.

Nazioarte arloan, **17 ikaslek praktikak egin zituzten Europako enpresetan** (Herbehereak, Erresuma Batua eta Alemania). Halaber, zentroak **Berrikuntza Transferitzeko 5 proiektutan** parte hartu du, "Leonardo Da Vinci" europar proiektuaren bitartez finantzatuta. Programa horren bidez jasotako diru laguntza 174.157 €-koa izan da.

Nazioarte arloan, aipagarria da zentroa Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailarekin lankidetzan aritu izana "**Praktikak Atzerrian egiteko Bekak**" programan, "**Global Training**" izenekoan, unibertsitateko nahiz Lanbide Heziketako tituludunei zuzenduta. Beka horiek kudeatzeko, gure zentroa homologatua izan da EHUrekin, Deustu eta Mondragon Unibertsitateekin, hiru Merkataritza Ganbarekin eta hiru aurrezki kutexekin batera. Hala, Politeknika Ikastegia Txorierri izan da Lanbide Heziketako goi mailako ikasketak amaitu dituzten gazteei zuzendutako 32 beka kudeatzeko **Autonomia Erkidegoko LHko** zentro aitortu bakarra. Bekek 6 hilabete iraungo dute eta gure bekadunak Holanda, Erresuma Batua, Txekiar Errepublikak, Frantzia, Irlanda, Txile eta Kanadako enpresetan arituko dira.

Kultura ekintzailearen arloan, bi **enpresa haztegi** hauek jarraitzen dute izaten zentroaren sinergien helburu: ESS (Engineering Solutions and Services S. Coop.), bere jarduera automozioaren eta aeronautikaren ingeniaritzan garatzen duen enpresa; eta Ardolan (ur eta ingurumen analisiak egiteko zerbitzuak). Horretarako, zentroa bitartekari zereginetan ibili da beste enpresa batzuekin, enpresa bion bideragarritasuna hobetze aldera. Horren erakusgarri dira AICrekin (Automotive Intelligence Center) izandako harremanak, ESS S. Coop. ACICAE Automozio Klusterrean sartzeko helburuarekin. Hor dago, baita ere, GAIKER Teknologia Zentroarekiko eta ARDOLAN enpresarekiko lankidetzak SPRIk finantzatutako Ikerketa Proiektu bat hasteko, helburu honekin: ardoaren kalitatea hobetzea eta aipagai dugun hau enpresarentzako jarduera eremu berria bihurtzea.

### Lea Artibai Ikastetxea

2011-12 ikasturte akademikoan zehar, Lea Artibai Ikastetxeak 21 talde izan ditu batxilergoetan eta heziketa zikloetan, eta 77 ikaslek egin dituzte praktikak enpresetan.

Nazioartekotzeari dagokionez, Erasmus bekei esker, 6 ikaslek atzerrian egin dituzte praktikak (Alemania, Italia, Finlandia, Polonia eta Estatu Batuak) eta Lea Artibaiko bi irakaslek lanbide heziketan kredituak transferitzeari buruzko TOI proiektu batean hartu dute parte.

11 ikaslek karrera amaierako proiektua aurkeztu dute Diseinuaren eta Berrikuntzaren Ingeniaritzan. Horietako 3 Alemanian egin dira, Frauhofeko Institutuan. Guk ematen dugun Plastikozko Produktuen Diseinuko Masterrean, berriz, 4 ikaslek lortu dute gradua. Nabarmendu beharreko beste mugari bat, Aitor Arriagak "Plasticity and Impact Test Studies on Thermoplastic Materials, Finite Element Analysis and

Experimental Correlation" doktore tesia London Metropolitan Universityn defendatu izana da; hala, Lea Artibai Ikastetzeko bigarren europar doktoregoa da.

Enplegurako Prestakuntzaren arloan, 9.021 prestakuntza ordu eman ditugu eta 73 pertsonak egin dituzte praktikak enpresetan. Hona hemen eman ditugun ikastarorik garrantzitsuenetako batzuk: Supply Chain Management, Logistika Integrala eta Produksioa eta Newfield-ekin "Zuzendaritza Gaitasun Generikoak".

### Arizmendi ikastola

Arizmendi Ikastola Gipuzkoako Debagoieneko 4 ikastola bateratzeetik sortu zen (San Frantzisko Xabier, Umezaintza, Almen eta San Viator). Ikastolaren eskaintza 0 urtetik 21 urtera bitartekoa da, hau da, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa hartzen ditu. Bertan dabilzan 3.200 ikasleak Aretxabaleta, Eskoriatza eta Arrasaten kokatutako 12 ikastetxeetan banatuta daude.

Arizmendi Ikastola kooperatiba integrala da, eta bazkide onuradunek (famiak), bazkide langileek eta bazkide laguntzaileek osatzen dute. Euskadiko Autonomia Erkidegoko ikastolarik handiena da.

Arizmendi ikastolaren hezkuntza proiektua pertsonaren eta pertsonaren gaitasunen inguruan ardatzen da, eta hauxe du helburu: eraldaketa eta hobekuntza sozialaren alde lankidetzan jarduteko gai izango diren pertsona ekintzaile eta sortzaileak garatzen laguntzea. Proiektuaren egiturari, ardatzak honako hauek dira: garapen pertsonala, IKTen erabilera, kultur aniztasunari irekita egotea eta gizarteratzea.

### Otalora

MONDRAGONeko Zuzendari eta Kooperatiba Garapenerako Zentroak (**Otalora**) eman zituen prestakuntza

saio eta programetara 5.000 pertsona inguru agertu zen.

Heziketa Kooperatiboaren arloan, bazkide taldeen presentzia esanguratsua izan zen -113 guztira-; organoetako taldeen presentzia, berriz, txikiagoa izan zen II. faseko programa aurreratuan, non Kontseilu Errektoreko 9 talde eta Kontseilu Sozialeko 12 talde baino ez baitziren egon.

Era berean, bazkide berrien 11 talderi harrera saioak egin zitzaizkien.

Zuzendarien Garapenari dagokionez, MBA Executive eta IKAS programaren edizio berri bat jarri zen martxan, eta prestakuntza saio bereziak egin ziren Finantza Arloan.

Gainera, Kultur Garapenaren arloan, enpresa kulturari buruzko hainbat inkesta egin ziren 18 kooperatibatan eta zenbait filialetan.

Lidergoaren eta Talde Lanaren arloan, nabarmentzekoa da Lidergo Kooperatiboaren programa berriak izan duen harrera ona, izan ere, guztira 52 taldek hartu dute parte, bai eta talde lanerako gaitasuna landu zuten 24 taldek ere, zenbait kasutan, coaching-eko banakako saioen laguntzaz.

Hedapen Kooperatiboaren arloan, NBEk 2012. urtea Kooperatiben Nazioarteko Urtea deklaratzeko hartutako erabakia mundu osoan zabaldu zuela eta, gure

Esperientzia Kooperatiboa ezagutzeko interesa nabarmen handitu zen, eta MONDRAGONera hurbildu ziren 136 bisitari talde hartu ziren eta MONDRAGONi buruzko 20 hitzaldi eman ziren hainbat ekitaldi nazionaletan zein internazionaletan.

Azkenik, aurreko urteetan bezala, 400 Foroaren beste edizio bat antolatuta zen Korporazioko zuzendarientzat, eta bertan 412 pertsonak parte hartu zuten; halaber, Arantzazu Foroaren beste edizio bat ere egin zen, Korporazioko kooperatibetako pertsonaleko zuzendari zuzenduta, non 106 pertsonak parte hartu zuten.







**EGOERA ORRI  
EKONOMIKOAK ETA  
ONDAREARENAK**

Atal honetan MONDRAGON Korporazioaren egoera ekonomikoari eta ondareari buruzko ikuspegi global bat emango da, aurreko ekitaldian izandako bilakaera erakutsiz. Informazio moduan, aipa daiteke jaulkipen publikoak dituzten sozietate batzuek Nazioarteko Kontabilitate Arauak aplikatuz lantzen dituztela beren egoera orri ekonomiko-finantzarioak, baina kooperatiba gehienek haietan oinarrituta dagoen Espainiako Kontabilitate Plana aplikatuz landu dituzte.

Aurkezten den informazioa Korporazioan dauden negozio guztien Balantze integratua da, eta azken bi urteetan negozio horiek sortutako Balio Erantsia ere erakusten da, saldoak eta barne mugimendu gurutatuak garbitu eta gero.

### **BALANTZEAREN BILAKAERA**

MONDRAGONek 2012ko abenduaren 31n zuen Balantzean 35.887 milioi euroko baliabide administratuen bolumena zegoen, ekitaldian bertan

3.434 milioi euroko hazkundera izan eta gero, % 10,6 termino portzentualetan.

Hedapen horretan ekarpenik handiena egin duen arloa Finantzen arloa izan da, bere aktiboak, kontsolidazioko doikuntzak egin eta gero, 3.583 milioi euroko progresioa izan baitu, batez ere Euskadiko Kutxak eta Ipar Kutxak bat egin izanari esker.

MONDRAGONeko 2012ko abenduaren 31ko balantzearen partida bakoitzaren alderdirik aipagarrienak ondoren zehazten direnak dira:



## MONDRAGONen Balantze Bateratuaren bilakaera

Kontzeptua	2011/12/31		2012/12/31		Urteko aldakuntza	
	Milloi €	%	Milloi €	%	Milloi €	%
Aktibo finkoa	6.927	21,3	7.094	19,8	167	2,4
Aktibo zirkulatuak	25.526	78,7	28.793	80,2	3.267	12,8
<b>AKTIBOA</b>	<b>32.453</b>	<b>100,0</b>	<b>35.887</b>	<b>100,0</b>	<b>3.434</b>	<b>10,6</b>
Fondo propioak	3.999	12,3	3.943	11,0	-56	-1,4
Kanpoko bazkideak	136	0,4	129	0,4	-7	-5,1
Hartzekodunak luzera	11.613	35,8	13.249	36,9	1.636	14,1
Hartzekodunak laburrera	16.705	51,5	18.566	51,7	1.861	11,1
<b>PASIBOA</b>	<b>32.453</b>	<b>100,0</b>	<b>35.887</b>	<b>100,0</b>	<b>3.434</b>	<b>10,6</b>

### **Aktibo finkoa**

2012ren itxieran erregistratutako ibilgetua 7.094 milioi eurokoa zen, urtean zehar 167 milioi euroko gehikuntza garbia izan eta gero (% 2,4).

Ekitaldian zenbatutako inbertsioak, guztira, 331 milioi eurokoak izan dira, eta inbertsioon zatirik handiena Industria Arloak hartu du, nahiz eta barne eskaeraren atonia agerikoa izan. Aurreko ekitaldian guztira aplikatutako amortizazioei dagokienez, horiek 501 milioi euroan kuantifikatu ziren, hau da, % 4,4 gutxiago aurreko urtean konputatutakoarekiko.

### **Aktibo zirkulatzaila**

Aktibo zirkulatzaila dimentsiorik handiena duen ondare masa da (28.793 milioi euro), eta ekitaldian 3.267 milioi euro handitu da, % 12,8 termino erlatiboetan. Partida honen bilakaera gorabeheratsua izan da, Finantza Arloan hazkunde nabarmena izan baita (3.149 milioi euro), nagusiki lehen aipatutako bat egitea dela eta. Bai Industria Arloan bai Banaketa Arloan, aktibo zirkulatzaila 54 eta 264 milioi euro murriztu da hurrenez hurren.

### **Ondare garbia**

Aurreko ekitaldiaren itxieran MONDRAGONeko Ondare Garbia 3.943 milioi eurokoa zen, kanpoko bazkideei zegokien zenbatekoa kontuan hartu gabe, horiek ere parte hartzen duten negozioen ondarearen parte baitira. Aipatutako Ondare Garbi horretatik 2.048 milioi euro Kapital Sozialari zegozkion, eta gainerako 1.895 milioiak Erreserbei.

### **Kanpoko bazkideak**

Azken urteetan, MONDRAGON Korporazioak bateratu egin ditu barne hazkunde eta beste bazkide batzuekin lankidetzan garatutako enpresa berriak, bai merkatu nazionalen hedatzeko bai nazioarteko merkatuetan zabaltzeko.

Kanpo partaidetza horien zenbatekoa guztira 129 milioi eurokoa zen

2012ko abenduaren 31n, eta batez ere industri kooperatiben eta banaketa sektorekoen egoera orri bateratuetan integratutako sozietate partaidetuetan zegoen.

### **Pasibo ez korrontea**

Kooperatibek eta beren Sozietate Partaidetuek erabilitako epe luzerako finantzaketaren saldoa, zeina hirugarrenengandik datorren, 13.249 milioi eurokoa da eta 1.636 milioi euroko hazkundera izan du 2012an.

Hazkunde horren zatirik handiena Finantza Arloan kokatuta dago batez ere, eta aipatutako bat egitearen ondorio da; Banaketa Arloan ere badago zati bat, non kreditu entitateekiko zorraren berregituraketa egin baita, epe laburretik luzerako aldaketa eginda.

Bilakaera horrek MONDRAGON osoaren Maniobra Fondo funtsezko eran hobetzea ekarri du, 1.406 milioi euroko hazkundera izan baita 2011ren itxierarekin alderatuta.

### **Pasibo korrontea**

Balantzearen partida hau 18.566 milioi eurokoa da eta 2012an 1.861 milioi euro handitu da, hau da, termino erlatiboetan, % 11,1.

Hala ere, aipatzekoa da Banaketa Arloan 314 milioi euroko murrizketa izan dela.

## **BALIO ERANTSIAREN BILAKAERA**

MONDRAGONeko Balantzearen osagarri gisa, hurrengo taulan bere egoera orri ekonomikoen datuen osaera aurkezten da, azken bi urteei buruzkoa, Balio Erantsiaren banaketarako formatuaren arabera antolatuta.

2012an MONDRAGONek sortutako Balio Erantsia 3.717 milioi eurokoa izan da guztira; hala, aurreko urtean lortutako zenbatekoarekiko % 0,4ko hazkundera izan da.

Balio Erantsiaren zifra osoari egin zaion ekarpenik handiena Industria Arlotik etorri da (1.787 milioi euro, guztizkoaren % 48), eta atzetik datoz Banaketa Arloa (% 33), eta Finantza Arloa (gainerako % 19a).

Pertsonal Gastuetan (2.428 milioi euro) ia-ia errepikatu egiten da aurreko urteko zifra. Finantza eta Industria Arloetan hazkundeak izan dira eta Banaketa Arloan, berriz, jaitsiera, langile zerrenda gaur egungo jarduera mailetara doitu izanaren ondorioz.

Ondorioz, Ebitda adierazlea 1.289 milioi euroan jarri da, hau da, aurreko ekitaldiarekiko % 0,9ko murrizketa txikia izan da.

Bestalde, Finantza Gastuetan 61,2 milioi euroko murrizketa izan da 2011rekiko, eta portaera antzerkoko izan da arlo guztietan.

MONDRAGONek 2012an aplikatutako amortizazioen zenbatekoa 501 milioi eurokoa izan da, 23 milioi euroan atzera eginda (% 4,4 termino erlatiboetan).

Industria Arloak kontabilizatu ditu amortizaziorik handienak (296 milioi euro, guztizkoaren % 59), eta atzetik dator Banaketa Arloa (188 milioi euro, guztizkoaren % 38).

Adierazitako gastu guztiak kendu eta gero, Emaidza Operatiboak 414 milioi eurora iritsi ziren 2012an. Zifra horrek % 20,7 hobetzen du 2011n lortutako zifra.



## MONDRAGONen Balio Erantsiaren bilakaera

Kontzeptua	2011/12/31		2012/12/31		Urteko aldakuntza	
	Miloi €	%	Miloi €	%	Miloi €	%
BALIO ERANTSIA	3.701	100,0	3.717	100,0	16	0,4
Pertsona gastuak	-2.399	-65	-2.428	-65	-29	1,2
EBITDA	1.302	35	1.289	35	-13	-0,9
Finantza gastuak	-435	-12	-374	-10	61	-14
CASH FLOW	867	23	915	25	48	5,5
Amortizazioak	-524	-14	-501	-13	23	4,4
EMAITZA OPERATIBOAK	343	9	414	11	71	20,7



**ANTOLAMENDUAREN  
EGITURA**

**ERAKUNDE  
SOZIALAK**

**ETA  
ZUZENDARITZAKOAK**

# ANTOLAMENDUAREN EGITURA

## LEHENDAKARITZA Kontseilu Orokorra

### Industria Arloa

Industria Kontseilua

CHP Automozioa

CM Automozioa

Industria Automatizazioa

Osagaiak

Eraikuntza

Jasokuntza

Ekipamendua

Etxea

Ingeniaritzak eta Zerbitzuak

Makina-Erreminta

Industria Sistemak

Tresneria eta Sistemak

### Ezagutza Arloa

Finantza Arloa

Banaketa Arloa



# ERAKUNDE SOZIALAK ETA ZUZENDARITZAKOAK

## Batzorde Iraunkorra

### Lehendakaria

Agustín Markaide

### Lehendakariordea

José Miguel Lazkanotegi

### Kideak

Irene Alberdi

José Antonio Alústiza

Jesús M<sup>a</sup> Astigarraga

Ane Beristain

Iñaki Durañona

Julián Errarte

Julio Gallastegi

Javier Goienetxea

Aitor Irure

Esther Korta

Antton Kortazar

José Luis Madariaga

Julen Madariaga

Leire Mugerza

Iñaki Ormaetxe

José Luis Pérez

Javier Retegi

Mikel Uribetxebarria

Pedro Urteaga

### Idazkaria

Arantza Laskurain

### Aholkulari juridikoa

Zorione Arregi

## Kontseilu Orokorra

### Lehendakaria

Txema Gisasola

### Kideak

José Miguel Arregi

Fabián Bilbao

Iñaki Gabilondo

Txomin García

José Ramón Goikoetxea

Belén Kortabarria

Agustín Markaide

Francisco Javier Mutuberria

Javier Sotil

Iñigo Ucín

Mikel Zabala

### Idazkaria

Arantza Laskurain

## Industria Kontseilua

### Lehendakaria

Txema Gisasola

### Kideak

José Miguel Arregi

Angel Barandiaran

Fabián Bilbao

Iñaki Gabilondo

José Ramón Goikoetxea

José Luis Lizarbe

Francisco Javier Mutuberria

Miguel Ocaña

Juan María Palencia

Javier Sotil

Iñigo Ucín

Josu Ugarte

Mikel Zabala

### Idazkaria

Juan Andrés Joaristi



**ENPRESEN  
ZERRENDA**



# FINANTZA ARLOA

## BANKA

### **CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO**

Jose M. Arizmendiarieta pasealekua, s/n  
20500 Mondragón (Gipuzkoa)  
Espainia  
Tel.: 34 943 719 500  
Fax: 34 943 719 778  
E-mail: contactacon@cajalaboral.es  
www.cajalaboral.es  
**JARDUERA:** *Banka.*

### **CAJA LABORAL GESTIÓN, S.G.I.I.C., S.A.**

Pº José Mª Arizmendiarieta, 5  
20500 Mondragón (Gipuzkoa)  
Espainia  
Tel.: 34 943 719 114  
Fax: 34 943 719 116  
www.cajalaboral.es  
**JARDUERA:** *Inbertsio fondoak kudeatzea.*

### **CAJA LABORAL PENSIONES, S.A., G.F.P.**

Pº José Mª Arizmendiarieta, s/n  
20500 Mondragón (Gipuzkoa)  
Espainia  
Tel.: 34 943 719 535  
Fax: 34 943 719 778  
www.cajalaboral.es  
**JARDUERA:** *Pentsio fondoak kudeatzailea.*

### **CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA CARTERA, S.L.U.**

Pº José Mª Arizmendiarieta, s/n  
20500 Mondragón (Gipuzkoa)  
Espainia  
Tel.: 34 943 719 500  
Fax: 34 943 710 778  
www.cajalaboral.es  
**JARDUERA:** *Partaidetzen edukitzailea.*

### **CAJA LABORAL BANCA SEGUROS, S.L.U.**

Gran Vía de Diego López de Haro, 2  
48001 Bilbao (Bizkaia)  
Espainia  
Tel.: 34 944 065 200  
**JARDUERA:** *Banku aseguruaren operadorea.*

### **SOCIEDAD GESTIÓN ACTIVOS CAJA LABORAL, S.A.U.**

Pº José Mª Arizmendiarieta, s/n  
20500 Mondragón (Gipuzkoa)  
Espainia  
Tel.: 34 901 333 444  
www.viviendascajalaboral.com  
**JARDUERA:** *Aktibo higiezinak kudeatzailea.*

### **SOCIEDAD GESTIÓN ACTIVOS CAJA LABORAL, S.A.U.**

Pº José Mª Arizmendiarieta, 5  
20500 Mondragón (Gipuzkoa)  
Espainia  
Tel.: 34 943 719 535  
Fax: 34 943 719 778  
www.cajalaboral.es  
**JARDUERA:** *Aktibo higiezinak kudeatzailea.*

### **CREDIGES, S.A.U., S.G.I.I.C.**

Correo, 2 - 6ª planta  
48005 Bilbao (Bizkaia)  
Espainia  
Tel.: 34 944 790 625  
E-mail: crediges2@gmail.com  
**JARDUERA:** *Inbertsio fondoak kudeatzailea.*

### **PIENSOS DEL NORTE, S.A.**

Derio Bidea, 43  
48100 Mungia (Bizkaia)  
Espainia  
Tel.: 34 629 475 888  
Fax: 34 943 719 778  
E-mail: iaberasturi@piensosdelnorte.com  
www.piensosdelnorte.com  
**JARDUERA:** *Pentsu ekoizlea.*

### **GARKANBA, S.L.**

Correo, 2  
48005 Bilbao (Bizkaia)  
Espainia  
Tel.: 34 901 333 444  
www.viviendascajalaboral.com  
**JARDUERA:** *Aktibo higiezinak kudeatzailea.*

### **CLARIM ALAVA, S.L.**

Dato, 14-16  
01005 Vitoria (Álava)  
Espainia  
Tel.: 34 901 333 444  
www.viviendascajalaboral.com  
**JARDUERA:** *Aktibo higiezinak kudeatzailea.*

### **CLARIM NAVARRA, S.L.**

Arcadio Larraona, 1 - 1º planta  
31008 Pamplona (Navarra)  
Espainia  
Tel.: 34 901 333 444  
www.viviendascajalaboral.com  
**JARDUERA:** *Aktibo higiezinak kudeatzailea.*

### **CLARIM VALLADOLID, S.L.**

Héroes del Alcázar, 2 - 1º  
47001 Valladolid  
Espainia  
Tel.: 34 901 333 444  
www.viviendascajalaboral.com  
**JARDUERA:** *Aktibo higiezinak kudeatzailea.*

### **CLARIM BIZKAIA, S.L.**

Gran Vía, 2 - 2º  
48001 Bilbao (Bizkaia)  
Espainia  
Tel.: 34 901 333 444  
www.viviendascajalaboral.com  
**JARDUERA:** *Aktibo higiezinak kudeatzailea.*

### **CLARIM GIPUZKOA, S.L.**

Pº José Mª Arizmendiarieta, 4  
20500 Mondragón (Gipuzkoa)  
Espainia  
Tel.: 34 901 333 444  
www.viviendascajalaboral.com  
**JARDUERA:** *Aktibo higiezinak kudeatzailea.*

## ASEGURUAK

### **SEGUROS LAGUN ARO VIDA, S.A.**

Capuchinos de Basurto, 6 - 2º  
48013 Bilbao (Bizkaia)  
Espainia  
Tel.: 34 944 798 300  
Fax: 34 944 798 383  
www.seguros lagunaro.com  
**JARDUERA:** *Bizitza-aseguruak.*

### **SEGUROS LAGUN ARO, S.A.**

Capuchinos de Basurto, 6 - 2º  
48013 Bilbao (Bizkaia)  
Espainia  
Tel.: 34 944 798 300  
Fax: 34 944 798 383  
www.seguros lagunaro.com  
**JARDUERA:** *Aseguru Orokorrak.*

## GIZARTE AURREIKUSPENA

### **LAGUN-ARO, EPSV**

Pº José Mª Arizmendiarieta, s/n  
20500 Mondragón (Gipuzkoa)  
Espainia  
Tel.: 34 943 790 100  
Fax: 34 943 793 531  
**JARDUERA:** *Babes soziala kooperatibistei.*

### **LAGUN-ARO SERVICIOS, S.COOP.**

Pº José Mª Arizmendiarieta s/n  
20500 Mondragón (Gipuzkoa)  
Espainia  
Tel.: 34 943 790 100  
Fax: 34 943 793 531  
**JARDUERA:** *Berari atxikitako erakundeen eta bazkideen zerbitzu eta ondasunen ikerketa, aholkularitza eta administrazio mankomunatuak, arlo hauetan: gizarte segurantzak, medikuntza prebentiboak eta lanekoak, eta horien kideak.*

### **AROGESTIÓN AHORRO-JUBILACIÓN, EPSV**

Pº José Mª Arizmendiarieta s/n  
20500 Mondragón (Gipuzkoa)  
Espainia  
Tel.: 34 943 790 100  
Fax: 34 943 796 444  
**JARDUERA:** *Bazkide babesleei eta bazkide oso edo arruntei Erretiro estaldura hobetzeko behar diren tresnak ematea.*

### **OSARTEN**

Pº José Mª Arizmendiarieta s/n  
20500 Mondragón (Gipuzkoa)  
Espainia  
Tel.: 34 943 790 100  
Fax: 34 943 798 080  
**JARDUERA:** *Laneko arriskuen prebentziorako zerbitzu erkidetua.*



**ABANTAIL**

Polo Garaia, Goiru kalea, 7  
20500 Mondragón (Gipuzkoa)  
Espainia  
Tel.: 34 943 712 560  
Fax: 34 943 712 568  
E-mail: contacto@abantail.com  
www.abantail.com

**JARDUERA:** Enpresen Diseinu Egokitzailera optimizatzen zerbitzu integrala.

**ALECOPI**

Loramendi, 11  
20500 Mondragón (Gipuzkoa)  
Espainia  
Tel.: 34 943 712 405  
Fax: 34 943 799 212  
E-mail: alecop@alecop.es  
www.alecop.es

**JARDUERA:** Instalazio elektriko aurrefabrikatuak. Hezkuntzako proiektuak eta baliabideak. Hezkuntzako eta prestakuntzako sistemak.

**ALECOPI FORMAÇÃO TECNICA E PROFISSIONAL**

Rua Orlando Gonçalves, nº 5 - 4º esq.  
2610-127 Buraca Amadora  
Portugal  
Tel.: 351 219862448  
Fax: 351 219862307

**ALECOPI ENSEIGNEMENT TECHNIQUE**

38 Chemin Du Calice Bp 21.  
01121 Montluel Cedex Lyon  
Frantzia  
Tel.: 33 472 25 71 22  
Fax: 33 472 25 73 66

**ALECOPI SUCURSAL COLOMBIA**

Carrera 18, Nv8-40 Of. 701  
Bogotá  
Kolonbia  
Tel.: 571-53 00 714  
Fax: 571-62 183 12  
www.alecop-colombia.com

**ALECOPI DIDÁCTICA S.A. DE C.V.**

Av. Ejército Nacional, 678  
Col. Polanco Reforma Del Miguel Hidalgo.  
11550 México DF  
Mexiko  
Tel.: 52 55 14 11 60  
Fax: 52 55 14 25 67

**INSTITUT DES METIERS AUTOMOBILE KENITRA, S.A.**

21, Avenue Bin Elouidabe  
Apt. Nº 6 Agdal  
Chez K2 Consulting  
Rabat  
Maroko

**IHARDUN MULTIMEDIA**

Loramendi, 11  
20500 Mondragón (Gipuzkoa)  
Espainia  
Tel.: 34 943 791 807  
Fax: 34 943 711 755  
E-mail: sarrera@ihardun.com  
www.ihardun.com  
**JARDUERA:** Eduki digitalak garatzea, prestakuntza, eta IKT aholkularitza.

**M.E.I. (MONDRAGON EDUCACION INTERNACIONAL)**

Loramendi, 11  
20500 Mondragón (Gipuzkoa)  
Espainia  
Tel.: 34 943 771 497  
*Partaidetzak: Alecop % 28,97, MU % 28,97, MONDRAGON Inbertsioak % 23,17 eta Grupo Actua Diversifikacion % 18,89.*

**M.L.S MANAGED LEARNING SOLUTIONS**

C/ Goiru, 1  
20500 Mondragón (Gipuzkoa)  
Espainia  
Tel.: 34 943 712 405  
Fax: 34 943 799 212

**ALKARGO**

Aritz bidea 83, Bº Atela, Aptdo. 102  
48100 Mungia (Bizkaia)  
Espainia  
Tel.: 34 946 740 004  
Fax: 34 946 741 700  
E-mail: alkargo@alkargo.com  
www.alkargo.com  
**JARDUERA:** Banaketa transformadoreak. Potentzia ertaineko transformadoreak. Autotransformadoreak. Kapsuletan sartutako transformadore lehorrak.

**AURRENAK**

Vitorialanda, 15  
Ali - Gobeo  
01010 Vitoria (Álava)  
Espainia  
Tel.: 34 945 244 850  
Fax: 34 945 246 912  
E-mail: ak@aurrenak.com  
www.aurrenak.com  
**JARDUERA:** Automobilgintzaren merkatuan burdina eta aluminioa urtzeko teknologia desberdinetarako tresneria.

**AURRENAK SERVICE S.A. DE C.V.**

Av. Siderúrgica 2023  
Parque Industrial Saltillo-Ramos  
Ramos Arizpe-Coah, 25900  
Mexiko  
Tel.: 52 844 48 81 361  
Fax: 52 844 48 81 362  
E-mail: akmexico@aurrenak.com  
**JARDUERA:** Automobilgintzaren merkatuan burdina eta aluminioa urtzeko teknologia desberdinetarako tresneria.

**BATZ**

Torrea auzoa, 32  
48140 Igorre (Bizkaia)  
Espainia  
Tel.: 34 946 305 000  
Fax: 34 946 305 020  
E-mail: batzcoop@batz.es  
www.batz.com  
**JARDUERA:** Trokelak ekoiztea. Jasokuntza sistemak tool kita barne izanik, balazta sistemak, mihizatutako pedalen modulua eta egitura zatietako mekanismoak.

**BATZ AUTOMOTIVE SYSTEMS KUNSHAN CORP. LTD.**

West of Huangpujiang Road  
Yanhu Industrial Zone,  
215341 Kunshan (Jiangsu Province)  
Txina  
Tel.: 86 0512 551 552 30  
Fax: 86 0512 551 552 31  
E-mail: giparragirre@batzkunshan.com  
**JARDUERA:** Automobilgintzako sistemak eta modulua.

**BATZ CZECH, S.R.O.**

Ostravská 1671,  
739 11 Frydlant nad Ostravicí  
Txekia  
Tel.: 420 558 603 011  
Fax: 420 558 640 168  
E-mail: apagonabarraga@batz.cz  
**JARDUERA:** Automobilgintzako sistemak eta modulua.

**BATZ MEXICANA S.A. de C.V.**

Circuito de Exportación, 142  
Parque Industrial Tres Naciones  
Segunda Etapa  
78395 San Luis Potosí  
Mexiko  
Tel.: 52 444 499 93 00  
Fax: 52 444 799 72 41  
E-mail: azabala@batzmexicana.com  
**JARDUERA:** Automobilgintzako sistemak eta modulua.

**FPK DO BRASIL COMPONENTES AUTOMOTIVOS LTDA.**

Av. Leste, 3.200  
Campo Largo da Roseira  
São José dos Pinhais - PR  
CEP: 83090-470  
Brasil  
Tel.: 55 41 2106-2300  
Fax: 55 41 2106-2310  
**JARDUERA:** Konpositez egitura osagaiak eta egitura aerodinamikoak.

**FPK LIGHTWEIGHT TECHNOLOGIES DEUTSCHLAND GMBH**

Lehmkuhlenweg, 77  
31224 Peine  
Alemania  
Tel.: 49 5171 703 0  
Fax: 40 5171 703 299  
**JARDUERA:** Konpositez eginiko osagaiak eta egitura aerodinamikoak.

# INDUSTRIA ARLOA

## FPK, S.COOP.

Pol. Ugaldeguren II, P-10 II  
48170 Zamudio (Bizkaia)  
Espainia  
Tel.: 34 944 522 605  
Fax: 34 944 522 156  
E-mail: fpk@fpk.es  
www.fpk.es

**JARDUERA:** Konpositez eginiko osagaiak eta egitura aerodinamikoak.

## MB LUSITANA

Rua das Fontainhas  
Casal da Lebre  
2430-180 Marinha Grande  
Portugal  
Tel.: 35 124 45 70 350  
Fax: 35 124 45 70 351

**JARDUERA:** Automozioaren sektorearentzat trokelak ekoiztea eta doitzea.

## MB SISTEMAS

Pol. Industrial Igeltzera  
Igeltzera, 8  
48610 Urduliz (Bizkaia)  
Espainia  
Tel.: 34 944 030 626  
Fax: 34 944 030 627  
E-mail: comercial@mbsistemas.es  
www.mbsistemas.es

**JARDUERA:** Mihiztadura sistemak eta txapasoldadura.

## MB TOOLING S.A.

Parque empresarial Boroa 2A - 2  
48340 Amorebieta (Bizkaia)  
Espainia  
Tel.: 34 946 309 900  
Fax: 34 946 734 718

**JARDUERA:** Automozioaren sektorearentzat trokelak doitzea.

## MB TOOLING RIOJA, S.L.

Pol. Industrial el Sequero  
